

**Iturrien erabilera eta tamainak
egitura(z) zehaztuaz:
Refranes y Sentencias eta
Hiztegi Hirukoitza
(XVI. mendeko bizkaierazko erretrauez III)**

Joseba A. Lakarra
EHUko irakaslea

Refranes y Sentencias-ek Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ren *Eraskin*-ean izan zuen eragina berrikusten da helburu metodologikoekin, bana-banako iturri azterketaren lagungarri gisa egiturazko azterketa proposatuaz. Larramendik bilduriko eta bildu gabeko hitzen azterketak, iturri izan zuen erretrau bildumaren kuadernotxotan antolaturiko egitura eta tamaina ezagutzen laguntzen du; eta aldiberean datu hauek erabakior bihurtzen dira Larramendiren hitz batzuen jatorria zehazteko.

The influence of *Refranes y sentencias* on the Annex of *Trilingual Dictionary*, by Larramendi, is revised with a methodological objective, proposing a structural analysis which may be useful in an individual source analysis. The searching of the collected and no collected words by Larramendi, helps to know the structure and the size of the collection of proverbs Larramendi took as source; and, at the same time, this data becomes decisive to specify the origin of some Larramendi's words.

0. Aitzin solasa¹

Iturri ezberdinak eta aski ugariak ditugu bizkaiera zaharra ezagutzeko; haatik, ezin esan daiteke ezagunegi denik, eta ezta ere, gehituko nuke, honen ondorio gaiztoak saileko ikerlari urrien eremu txikian pairatzen direla soilik. Benetako dokumentuak miatu gabe beren burutik B (eta orobat gainerako euskalkiak) zer den eta zer izan den asmatzen eta erabakitzen saiatu direnak albo batera utziaz (cf. Lakarra 1986b), ez dirudi B-ren historia (ez eta gainerako euskalkiena ere, seguruenik) aski ikertu denik, nahiz eta agian horretarako materialik gehien aurkeztu. Materialak, ordea, ez dira dena: bildu, landu, txukundu eta behar bezala argitara beharra dago. Hots, filologiazko aurrean hori premiazkoa da gero hizkuntzalariak (eta halaber literatur ikerlariak) arrisku gutxiagorekin baliatuko badira beren azterketetan. Lehenago ere aipatu izan dut inoiz Meilleten hurrengo pasarte hau baina ez deritzot gehiegi berriz hemen emateari, ongi baitzekien hark zer ari zen:

Pour les langues anciennes, le linguiste doit recourir à une philologie de précision: on s'est parfois imaginé que le linguiste peut se contenter d'à peu près philologiques; il a besoin tout au contraire de tout ce que les méthodes philologiques les plus exactes per-

mettent de précision et de rigueur (*La méthode comparative en linguistique historique*, 110).

Mitxelenaren aholkuari jarraiki² nahi natzaio lan honetan XVI. mendeko B-ko errefrau bilduma baten eraginaz eta tamainaz aritzean. Baliteke irakurleak erabat berririk edota ezkutuegirik ez eridetea; alabaina, itxadoten dut zertxobait aurreratzea, alde batetik ez baitakit zeinen ezagunak diren aurrekoen ezagutzak eta, bide batez, ezagutza berriren bat ere ikusiko delakoan bainago; orobat, begibistakoa dirudienaz mesfidatzean datzala deritzot segurtasunen bat lortzeko lehen baldintza, nahiz eta ikertu ondoren aitzinekora bihurtu. Orduan ere ez litzaiguke alferra iruditu behar: oinarriak sendagoak lirateke, behintzat, eta hori ez da gutxi.

Azterketa honetan testukritika ez-stemmatikoaren alderdi batzuk ukitzen dira, bereziki iturri bilaketa eta berre-raiketa formalari legezkiekeen zenbait (cf. Lakarra 1991). Hizkuntzalaritzako ohizko usadioen eredura, oraingo honetan iturriaren erabilerak iturria neurri batean berreraikitzen lagun gaitza-keela erakutsi nahi nuke segidan adibide batez. Iturriaren eraginaren azterketa bana banakoaren aurrean testu edo hiztegi emailearen egituratik abiatuaz haren isla testu (hiztegi) hartzailean ikertzen da, ondoren

1. Lan hau Joakin Gorrotxategik eta Iñigo Ruiz Arzalluzek, hurrenez hurren, zuzendutako eta Eusko Jaurilaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak ordaindutako bi proiekturen barnean kokatzen da. Eskerrak zor dizkiet beren zuzenketa eta oharrengatik Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Iñigo Ruiz Arzalluz eta, bereziki, Blanca Urgell lankide eta adiskideei.

2. «La idea de que la historia de una lengua, de la vasca como de cualquier otra, sólo puede edificarse sólidamente sobre documentos fechados y localizados con la mayor precisión posible, no ofrece ninguna novedad. A lo sumo, acaso no esté difundida entre nosotros cuanto fuera necesario. Lo demás [...] no es más que extrapolación, que sólo vale si tiene el firme punto de apoyo de datos seguros y sirve para explicarlos diacrónicamente» (Mitxelena 1971: 149) eta «Para dedicarnos con tranquilidad a la prehistoria, habremos pues de esforzarnos en adquirir el conocimiento más exhaustivo posible de los datos disponibles, sin dejar ninguno de lado y sin ahorrarnos molestias en buscarlos y comprobarlos» (Mitxelena 1963: 14-15).

horretatik iturriaren egitura eta –inoiz– tamaina erdiesteko asmoz. Azterbide hau *RS* eta *Hiztegi Hirukoitz*-aren *Eraskin*-aren arteko erlazioei ezartzen zaie. Orain arte *RS E*-ren zenbait puntu, sarrera zenbaiten etorkia funtsean, azaltzeko baliatu badugu, nago *E* baliatuaz ez soilik Larramendik egin haren erabileraz, baizik eta *RS*-i berari buruz ere zerbait jakin dezakegun.

1. Garibairen bildumak eta Refranes y Sentencias

Esteban de Garibai erregearen kronista famatuak bere oroitzapenetan (Garibai 1854) dioskunez, bi errefrau sorta osatu zituen Juan de Idiáquez Felipe II.aren kortisauaren eskariz. Urquijok erakutsi zuen bezala (1919: 505-509), bi bilduma horiek ez dira guganaino eskuizkribaturik heldu; bai, aldiz, XVII. mendeko *Refranes en Bascuence compuestos por Esteban de Garibay y Çamalloa* bat, Madrilgo Biblioteca Nacionalean G139 zenbakia daramana; bestalde, Benito Maestrek Francisque Micheli XVI. mendeko kuadernotxo bat erregalatu zion euskal errefrauekin eta hilen eta egunen izenekin eta zenbait aditzekin Michel 1846an Madrilen zenean, eta kuaderno horretaz baliatu zen hau bere Oihenarti buruzko liburuan errefrauak eraskin gisa emateko. Gai hau ukitu dutenak ados izan dira bigarren bilduma Garibairena dela esatean, XVI. mendeko beste biltzaileraren izenik ez ezagutzeaz landa, Garibaik bere bigarrenaz zioenari ongi baitagokio; baina eta lehena? Urquijo ezezkotan zegoen:

Hay, por lo tanto, en las dos colecciones un fondo común de 37 refranes: y, si como es probable, la del siglo XVI, es decir la Cc79, es la de

Garibay, no parece poder admitirse que la G139 sea copia exacta de ninguna de las dos enviadas por Garibay a Idiáquez, y mucho menos copia y compilación de las dos. A mi juicio la colección G139 podría ser de algún vascófilo muy posterior, el ms. es del siglo XVII, que la compuso teniendo a la vista la de Garibay, pues no parece probable que éste enviara a Idiáquez por segunda vez 26 refranes [sic, 37ren ordez], que ya le había enviado antes. Esta razón y las que expuse en mi *Preámbulo a los Refranes Vascos de Sauguís*, me indujeron a proponer, aunque con gran desconfianza, la hipótesis, de que una de las colecciones de Garibay fuera la anónima de 1596, hipótesis acerca de la cual no me extiendo aquí pues es más natural vuelva a tratar de ella en mi introducción al comentario del *Unicum* de Darmstadt (1919: 510).

Lan horren peitu, hara Urquijok berak zer zioen *RS*-en egileaz Zalgizeren errefrauaren argitalpenari jarri zion hitzaurrean:

No se tiene la más remota idea de quién fuera el autor o coleccionador de *Refranes y Sentencias*, ni me consta que nadie haya mostrado vehemente deseo de averiguarlo. La fecha de la impresión, juntamente con algunas otras coincidencias, ha despertado en mi la *sospecha*, (observe bien el lector que no digo el *convencimiento*), de que tal vez no fueran ajenos a dicha publicación D. Esteban de Garibay y Çamalloa o su amigo Don Juan de Idiáquez (1908: 82).

Conocidos son, por haberlos publicado la Real Academia de la Historia (...) los *Refranes Vascongados recogidos y ordenados por Esteban de Garibay y Çamalloa, Cronista de S.M.* Claro es que éstos son distintos de los contenidos en *Refranes y Sentencias*: pero ¿no envió anteriormente Garibay a Idiáquez otros refranes vascongados, cuyo paradero se ignora? Y si esto es

cierto, ¿no serían estos los publicados en 1596? Confieso ingenuamente que carezco de datos suficientes para contestar afirmativamente a semejante pregunta; mas previa esta aclaración, no creo haya inconveniente en exponer algunas consideraciones que la lectura de *Refranes y Sentencias* y de las *Memorias* de Garibay me ha sugerido; tanto más, cuanto que quizás con esto se anime alguno de mis lectores a poner en claro este asunto (1908: 683).

Lakarra 1986a-n ikusi zenez,³ A-zehazkiago, W, honen orijinala- eta B errefrau bildumak Garibairenak dira, beren tamainak, A-ko kopiagilearen egileazko lekukotasunak, A eta B-ko errefrauen ordenak, hizkuntz azterketaren ondorioak, A-ren ekoizpena ulertzeko B ez den iturri baten beharrak eta A eta B-ren grafiazko loturatik datozkigun arrazoiek erakusten digutenez.

Bestalde, *RS* ez dela Garibairena baina egile ezezagun bat(zu)ena erakutsi nuelakoan nago lan berean. Honetarako grafiazko eta hizkuntzazko argudioak erabili nituen, aurretiaz Urquijok *RS*-ei buruz eraikitako teoriaren ahuleziak agertu eta *RS*-etan, batetik, eta A-B bildumetan, bestetik, errepikatzen ziren zenbait errefrauen ezberdintasunak gogoratu ondoren. Orduan esan bezala, azterketaren bi atalak ziren elkarren osagarri, bateko gogoeta eta ondorioek bestekoak laguntzen eta indartzen zituztelarik. Ene ustez, bata zein bestea aski bazen ere Urquijoren teoria deuseztatzeko, biak ukitu nahi izan nituen haren ordezkoi baten oinarriak sendotzeko eta, bide batez, ondorio berriak (esaterako, W eta B-ren arteko kronologia zehazteko diren edukinezko eta grafiazko arrazoiak) emendatuaz.

Arrazoizkoa iruditu zitzaidan bide horretatik abiatzea XVI. mendeko bizkaierazko errefrau bildumen testu-kritikazko arazo ugarietan argiren bat egiteko. *RS*-ek bere aldetik ere frango buruhauste eta galdera sortzen dituelarik testukritikari dagokionez, gerorako utzi nuen *RS*-en berriazko azterketa, soilik Garibairen sortez egin zezakeen argiagatik nerabilelarik bilduma hori aspaldiko lan hartan.

2. *RS* eta Hernán Nuñez

Izan, testukritika arazo ugari eta larriak ditu testu interesgarri honek: egiletasuna (Garibairena ote?), testuaren etorkia (Arrasate ingurukoa, Orozkokoa?; cf. Lakarra 1995a), errefrauen iturburuarena (herrikoiak?, Hernán Nuñez-engandik [=HN] itzuliak?; cf. Lakarra 1990a), testuaren tamaina (ale ezagun bakarra ez zen osoa), etab., testuaren ulerpena bera inoiz gutxi balitz (cf. Lakarra 1995b); Urquijo (1908, 1911-33, 1919) arduratu zen hauetako zenbaitez, baina zorigaitzez ez zuen inoiz argitara eman: *RS*-i buruz egin gogo zuen «Sarrera», eta han-hor-hemen (berezi-ki bere *RS*-aren edizioko iruzkinetan) sakabanaturiko oharren bitartez jabetu behar dugu obra horren gainean zituen ideiez.

Errefrauen iturburuari dagokionaz, halere, baieztapenak ugari dira, eta interesgarria izan zatekeen arren bere iritzi eta frogak luzez azaldu izan balitza, ez dugu aieru hutsetan oinarritzeko arriskurik, argiro antzeman baitezakegu haren hurbilketa muina ondorengoaren antzeko pasarteetan:

3. Jo beza bertara hemen zehaztasun guztiekin ezin azal ditzakedan alderdietan interesatuak.

Me hubiera sido fácil tomar los refranes italianos, franceses y portugueses que cito [*RS*-en erkaketan], de colecciones modernas, más correctas que las antiguas: pero para la tesis que defiendo —de que la colección del Comendador es la fuente principal del libro vasco de 1596— me conviene no hacerlo. Quiero, en efecto, hacer patente que, en varios casos, cuando el refrán vasco se asemeja más que el castellano a un proverbio extranjero, éste se halla incluido en la obra de Hernán Núñez. Véase para más detalles mi Introducción. Entiéndase bien, que no sostengo que no existen refranes vascos originales, sino que los de la colección de 1596 están tomados en grandísima parte de los refraneros castellanos (*RIEV* 5, 378, 1. oh.).

Bere ondorioak ez zaizkidala zuzenak iruditzen erakutsi nuen (1990a)-n: ene usteko, Hernán Núñezena ez da *RS*-en iturri nagusia ezta bilduma hau —hipotesi ahulagoaren aurka— “zati larri batean” gaztelar errefrautegietarik itzulia. Bidenabar, hala balitz ez litzateke sendotuko *RS*-en etorkiei buruzko Urquijoren beste hipotesia, hots, bilduma hau dela Garibairen bietarik bata. Izan ere ez da ezer Garibaik bere lanaz damaizkigun berrietan HN-tik zerbait hartu zuenik suposatzeke eta Urquijo ez zen saiatu ere egin bide hau urratzen.

Bestalde, haren gonbaraketa metodo eta irizpideetan oinarritzko akatsak direlakoan nintzen eta horrela jarraitzen dut: Usu antzekotasuna

soilik *ad sensum* ematen da, ez hitzez-hitzezko edo gutxienez egiturazko egokitasuna; Urquijo bera zenbaitetan ohartu bezala, *RS*-eko erdal testua da euskarazkoaren itzulpen, ez alderantziz, eta batzuetan bi testuen arteko ezberdintasuna hain doa urruti non ezin ukatuzkoa den erdal zatian ez dela euskarazkoa eman, eta bai, ostera, hura gaizki ulertu dela.⁴

Gertakari hauek ez dira erraz azaltzen Urquijoren teoriaren barnean, *RS*-en erdal itzulpena egin zuena, erdaratik euskarazkoak itzuli zituen bera ez zela esanaz ez bada, inoiz hark egin bezala. Suposaketa honek, ordea, bere teoria askozaz “garestiago” bilakatzen du eta ez dakit balioko lukeen azaltzeko *RS*-eko gaztelera batzuetan HN-ena baino zaharragoa izatea. Halaber, zergatik dira beren ustezko orijinala baino luzeago edo laburragoak *RS*-ek HN-engandik hartuak? Hau azaltzeko, jakina, Urquijok, aurreko puntuan eskatu garestitzeaz gainera, *RS*-en biltzaileak orijinalekoak “moldatu” ere egin zituela onartu beharko luke. Antzeko arazoa sortzen da *RS*-eko errefrauek aldaerak dituztenean beren HN-ko ustezko kideen aurrean.

Bada beste arrazoi larri bat Urquijoren tesiaren aurka, ez *RS*-en erdarazko itzulpenari baizik eta haren ustez HN-engandik eman omen zen euskaratzeari dagokiona: sines ote daiteke Urquijok suposatu itzultzailearen

4. Lehen adibidea —«208. *Odol bearbaguea agirtucoda eguia eurea*, “Sangre sin ser necessaria descubrir se ha la tu verdad”». [Non zuzena *bearbaguea* ‘inocente’ den, Garibaik *Milia Lastur*-ren itzulpenean eman bezala; ikus *TAV*, 76]— Mitxelenak (1964: 790) atera zuen aspaldi; bigarrena ez dakit inork aipatu duen, nabarmenki gaizki itzulia izan arren: «166. *Hurdinetan assiazquero prestuesta seyzaroa ynoc çe bez aurqui guero çe aldia eldudoa*, “Despues de començado a encanecer no es de prouecho el niñear, nayde diga luego despues que el tiempo suele llegar”». [Zuzen, “...nayde encuentre luego que...” litzateke, non *aurqui bez* = *aurkitu*-ren erroa gehi *RS*-en bestetan ere (cf. 165, 363, 454) agertzen den **ezan*-en aginterako hirugarren pertsonako forma sinkopatua dugun].

euskaran horrelako polimorfismorik?⁵
Ez ote forma ezberdintasun hori erre-
frauen etorkiarenari zor zaiona?

Orain arte gogoratu datuek ez dute
batere laguntzen Urquijoren teoria eta
bai zalantzak sortzen. Bada oraindik
haboro.⁶

3. RS osatuaz: Vinson

Alabaina, ez da hori izango lan
honen gai nagusia. 1596an argitara
zen Iruñean, Amberesko Pedro
Porralsen etxean, honako izena
zeraman bilduma: *Refranes y Senten-
cias comunes en Bascuence, declara-
das en Romance con números sobre
cada palabra, para que se entiendan
las dos lenguas*. Vinsonek bere
Bibliografiaren Eraskinean dagokion
sarreran (1891-97: 6-7) dioenez

Voici la description exacte de ce
précieux volume, où il n'y a ni cote, ni
numéro, ni ex-libris, ni signature
d'aucun ancien propriétaire. Je n'ai pu
savoir comment il est arrivé à Darmstadt
(...) Il n'y a ni introduction, ni préface, ni
avis; on n'y trouve ni approbation, ni
licence, ni permission, ni taxe; on n'y
voit même aucun fleuron. Il faut noter

aussi qu'il n'y a pas de titre, et l'aspect
de la dernière page ferait croire que le
livre n'est pas fini et qu'il se compose
des bonnes feuilles d'une publication
interrompue en cours d'impression.⁷

Ezagutzen zen ale bakarra Hesse-
ko Artxiduke Handien bibliotekan
(Darmstadt-en) gordea genuen azken
Mundu-gerlan hondatu edo galdu
artean; han aurkitu zuen 1894ean Van
Eys-ek eta argitara eman bi urte
beranduago, liburuaren 300ak egiten
zirenean. Alea suntsitu baino lehen
Urquijok ere izan zuen parada haren
argazkiak lortzeko eta haiek baliaturik
eman zuen bere iruzkindun argitalpena
1911-33 urteetan RIEV-en. Ale honek
539 erretrau ditu 64 orrialdetan.⁸

Gorago eman dugun Vinsonen
aipamenak erakutsi legez, ezer gutxi
diosku liburuskak bere buruaz eta bai,
aldiz, zalantza eta galdera asko sor-
tzen: nor zen bere egilea?, zein bere
tamaina?, ze eratako zabalkundea
izan ote zuen eta inork ezagutu ote?,
nondikakoak ote dira erretrauok? etab.
Bi ikertzaile –Julio Urquijo eta Koldo
Mitxelena– saiatu dira arazo hauek
edo horiei lotuak argitzen, eta beraiek
izango ditut solaskide RS-en tamainaz
aritzeko.

5. Mia bitez hurrengo formok: *aja / ajate, ala / alan, alakoa / alangoa, ama / amea, arerio / etsai, barri / berri, duzti / guzti, tilista / dilista, emallea / emuylllea, eraman [berama] / eroan, askatu+izan / askatu+edun, ibini / ifini / imini, iskillu / iskillos, etab.*

6. Urquijok ez zuen Larramendiren lekukotasuna —alde batera zein bestera— kontuan hartu: «contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasiadamente á la letra». Izan ere horko «leuantar suele», «todos tartamudos», «aparejo para enriquecer» eta aipatu ahalko liritekeen beste hainbat, titulua bera («Comunes en bascuence, declarados en romance») eta zenbakiak (jarriko ote ziritekeen erdaratik itzuliak baziren eta ez, Larramendik ohartu bezala, euskaratik eta hitzez hitz gainera?) kontuan hartuaz errazago egiten zait pentsatzea RS-en iturri nagusia ez dela HN ez eta, seguruenik, idatzizko eta gaztelerazko besterik ere.

7. Beherago «Il est remarquable que Oihenart n'ait pas connu ce livre; il parait ne lui avoir fait aucun emprunt».

8. Vinsonek markatu bezala, 254.a eta 280.a, 256.a eta 291.a, 277.a eta 357.a beren artean errepikatuturik dira eta aldaeratzat jo daitezke 14.a eta 518.a, 51.a eta 485.a, 52.a eta 386.a, 106.a eta 139.a, 210.a eta 317.a, 213.a eta 438.a, 239.a eta 466.a, 314.a eta 329.a, 423.a eta 456.a; harentzat «Il n'y a donc en réalité que 527 proverbes différents» (ibid).

4. Urquijo Oihenartek ezagutu RS-*ez*

1967az geroztik badakigu, Urquijok argitaragabe utzi zuen lan baten bitartez (“De paremiología Vasca. ¿Conoció Oihenart los *Refranes y Sentencias* de 1596?”, ASJU 1, 3-10), Oihenartek RS ezagutu zuela: Urquijo konturatu bezala, Zalgizeren errefrau batzuen ondoren Oihenartek eskuizkribuan idatzi zituen 200etarik 39 «Biscaye» izenburupean datoz, «Navarre»-ko bakarraren eta «Soule»-ko ugariagoen artean. Bada, horietarik lehena Poza-rengandik hartutako sasi-errefrau dugu («298. *Garagorri; est adagium hominum factiosorum*. Poça, pag. 61») eta 18 (299-306 eta 327-336ak) jada Darmstadt-eko alearen bitartez ezagutzen ziren benetako errefrauak:

299. *Perrau neüen gogoa axeac bestera naraa*. [= 419];
300. *Ongo dot hoera afal çaga, jaguiterren çor бага*. [= 430];
301. *Exean dagoan gaxa erraz da ezauten*. [= 434];
302. *Obe chori bat escuan ce es bost ezcurrean*. [= 432];
303. *Apizetan ezтина edarayten da*. [= 509];
304. *Beluco ezconcea deunga, goxeticoa ez oba, aldia gauxac daude aroari jarray gaquioza*. [= 440];
305. *Çozpalac dirudi bere egurra ta egurrac bere escurra*. [= 483];
306. *Edoceyn bere ydeaz*. [= 489];
327. *Vgarajoen trisquea leorrerean ezera*. [= 436];
328. *Oassun ecen [sic] baño obea çarzaroco alabea*. [= 457];
329. *Ychadonic xoria ezcondu ney*. (alcançaria)[= 457];
330. *Catuac daroean oquelea gueyago da berea ce ez eurea*. (tajada) [= 468];
331. *Errana ezta goçoa bada bere eztizcoa*. (sabrosa) [= 460];
332. *Eguin ta aguindu ta ez ayte galdu*. [= 462];
333. *Chiroac arlotea ygui*. [= 493];

334. *Cequenaen vicia caltea osasuna aren herioçea*. [= 484];
335. *Saguac jango dauena catuac jan deçala*. [= 532];
336. *Çor çaarra goiz gaxtoen beguira*. [= 475]

5. Mitxelena Oihenarten RS-*ez*

Koldo Mitxelenak pausu bat gehiago eman zuen eta Urquijoren lanari jarri zion eraskinean erakutsi zuen hark aipatzen ez zituen 307-326ek ere bilduma berekoak behar zutela izan, hizkuntzak eta grafiak adierazi legez:

Entre los refranes vizcaínos copiados en este cuaderno, uno [...] procede de Poza, y otros dieciocho, los números 299-306 y 327-336, están tomados, sin lugar a dudas, de los *Refranes y Sentencias* vizcaínos de 1596. Esto lo vio Urquijo [...] pero lo que no vio, o lo que no se aventuró a decir, es que, intercalados entre ellos hay otros veinte, los números 307-326, desconocidos hasta ahora, que provienen de la misma fuente (Mitxelena 1967: 12-13).

Hauok alegia:

307. *Ynardun badaguic ez doquer [sic] besterenic*. “Si continuas en el trabajo, no tienes necesidad de otro”;
308. *Ojal ona huchan saldu doa*;
309. *Vrrineric ospea erricoa obea*;
310. *Saldabaga altamia oza[.]tan ez dilist[.]ia*;
311. *Huhuñenera hoxtuac bulea*;
312. *Otu doneari ygarartean nequea*;
313. *Guiçon onac azcurriac bere*;
314. *Ecandu gasstoari bernea ausi*;
315. *Barria edereguic*;
316. *Maya ta vide lucea gastigaturic* (enseñançã);
317. *Jaunen hotua oy da aguindua*;
318. *Emazte dollorren jaubea jopu*;
319. *Maiaz ozac dacaz pozac*;

320. *Garrastuadi icasterren ta neca adi euterren*. "Suffre por aprender y trabaja por tener";
321. *Bere burhua ezautea da jaquitea*;
322. *Gastelauna neguia senar oñean arr ta beguian negar*;
323. *Esquerrac yndauz ce onderexta ene gauçary*;
324. *Ene laba aldian labe[a] jausico zan*;
325. *Ilbeeran ereyn ceguic arean*;
326. *Onerextea dodan lecuán jarri daquidala egusquia*.

Arrazoiak pisuzkoak dira noski:

Esto es fácil de probar, o por mejor decir es evidente, por lo que me limitaré a apuntar las razones en que fundamento mi opinión. El lenguaje de esos veinte refranes es el mismo vizcaíno arcaico de los demás; iban, por otra parte, acompañados del mismo estilo de versión castellana, aunque Oihenart no consignó ésta más que ocasionalmente. Ciertas particularidades gráficas, finalmente, coinciden del todo con las que ya nos eran familiares por la parte publicada de *RS*: cf. *burhua* (321), *ojal* (308), pero *maiaz* (319) (Mitxelena 1967: 13).

6. Mitxelena *RS*-en tamainaz

Darmstadt-eko aleak dituen 64 orrialdeetarik (4 kuadernotxo) 16tan (kuadernotxo bakarra) –49 eta 64. orrialdeen bitarteko laugarren kuadernotxokoetan, hain zuzen– kokatzen dira Oihenartek kopiatutako errefrau ezagunak. Ez dirudi 49. orrialde horren (4. kuadernotxoaren hasiera) aurrekorik ezagutuko zuenik bitxi asko baitzen bat ere ez kopiatzeko. Darmstadt-eko alean gordetzen ez ziren beste 20ak horien ondoren bide zihoa-zen, 65. orrialdea litzatekeenetik aurrera, hots, bostgarren kuadernotxoan eta ondorengoetan. Kalkuluak arriskutsuak direla aitortu arren, Mitxe-

lenaren ustez honelako proportzioa genuke:

$$\frac{18 \text{ errefrau ezagun}}{16 \text{ orrialde}} = \frac{20 \text{ ezezagun}}{x}$$

Berari «Iruñean egindakoaren erdi osoa falta dakigukeela» ateratzen bazaio ere, erregela honek balio badigu orain arte ezagutzen genuena- ren ia herena emango liguke, ene usteko, 17,7 orrialde, zehatzago (=150 bat errefrau, gordetako orrialdeen batez-bestekoaren arabera). Liburua 16 orrialdetako kuadernotxotan antolat- urik izaki, erans dezakegu Oihenartek horietako bat (136 bat errefrau) edo, beharbada, bi (272 bat) ezagutuko zituela. Ez dakigu Larramendiren aleak zituen zati guretzat ezezagunak horien artekoak ziren ala ez. Beherago, lana- ren akabuan saiatuko gara honetaz zerbait esaten.

Mitxelenaren aurkikuntzaren ondo- ren *RS*-eko 560 errefrau ezagutzen ditugu; lehen baino 21 gehiago, alegia. Baina zenbat ote ziren guztira? Zenbat ezagutzen ote Larramendik? Eta erabili zenbat? Ba ote hau jakiteko modurik? Zer edo zer jakin daiteke Mitxelenak egiten duen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-eko *Eraskina*-ren iturrien azterketan oinarriturik.

7. Larramendiren “kuaderno zaharra”

Hara zer dioen Larramendik *Hiztegi Hirukoitz*-eko eraskinaren hasieran:

Al acabarse la Impresión del Diccionario me embía el Padre Agustín de Cardaveraz, de nuestra Compañía, un Cuaderno viejo, que le ha avido a las manos, andando en Misiones en Bizcaya. Está impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasiada-

mente a la letra. Fáltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimió. Las paginas están en dos columnas, y en la izquierda viene el Bascuence de letra redonda, a quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas lenguas están apuntadas con números iguales, y correspondientes todas las voces, assí las Bascongadas, como las Castellanas, para que nadie pueda equivocarse en su explicación por la Sintaxis tan diferente de una y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo común domine este último. En la Ortographía tiene sus erratas, pero son conocidas, y no causa confusión. Las páginas legibles son sesenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo común no están en este Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanas. He añadido también otras muchas voces que he oido en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buuelto a repassar con cuidado.

Vinson ohartu zen jadanik bere Bibliografiaren gehigarrian *RS* izan zitekeela Larramendik “kuaderno zaharra” deitzen duen hori, eta horrela jarri du argitan Mitxelenak bere *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*-n Larramendiren eraskinari eskeintzen dion atalean. Zorigaitzez, L-k ez du hitz bakoitza nondik hartu duen aitortzen eta ezin baieztatu daiteke segurtasun osoz Darmstadt-eko alean aurkitzen ez den berba edo errefrau bat *RS*-etik hartua dela, baina, halaz guztiz, Mitxelenak frogatu ahal izan du L-k *RS*-en ale bat ezagutu zuela eta, areago, ale horrek bazituela Darmstadt-ekoak gorde ez zituen zatiak, eta falta zituela beste zenbait, L-k ez baitzuen erabili gabe utziko bere eraskinean haietan ediren zezakeen

hainbat hitz interesgarri. Ezin dira, oro har, L-ren *E*-aren bitartez berak zuen *RS*-eko aleko errefrauak osatu, hitz solteak ematen baititu, ohi bezala; hala ere, inoiz edo behin oso bat ematen du exenplu gisa edota errefrau zati oso bat progotxatzen:

- 185. Darasme, y darete [sic] he, *iquedac, ta diaqueada*. [= *RS* 233].
- 459. Obero, overo caballo, *saruc*. Y el refran, *saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste*. [= *RS* 335].
- 400. Mañana, *biar*. Después de mañana, *etzi*. Dos días después *etziluma*. Tres días después, *etzicaramu*. [= *RS* 410 *Beyçut nai baoçu / gaur, biar, ezi, eziluma, ezicaramu*, “Haréoslo si quereys / hoy, mañana, después de mañana”].

Hirurok genituen ezagunak Darmstadt-eko alearen bitartez; alabaina, «Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d[oj]a*» Mitxelenak ohartzen duenez *RS*-etik dator Darmstadt-eko alean ez agertu arren: *sey* daukagu hor bezala, idazkeran islatu gabeko diptongo sudurkariarekin *RS*-eko 55, 238 eta 523an ere.

8. Hiztegi Hirukoitzaren Eraskina Mitxelenak aztertua: Darmstadt-eko alekoak

Har ditzagun, hasteko, Mitxelenak *E*-ko sarreraren batean litezkeen iturrien artean aipatu errefrauak:

<i>RS</i>	ERASKINA	HITZA
266	6	opea
171	8	asacatu
331	16	equix
251	20	uzcurtu
144/230/298	21	oratu
295/372	27	leusindu
388	37	alogadu
242	39	oneretsia

323	43	sutanza	238/469	324	escaratz
420	48	zarraldoa	379	325	induscatu
541	58	hucha	199/450	326	zurtza
7/404	60	isguiluac,	243/422	328	ines(i)
		isquilosac	295	330	burquidea
102/521	64	garbatu	402	335	curea
367	74	luparia	307	337	maemana
383	77	azarria	321	341	jaibala
165	78	azarcunza	94/191	347	murcoa
339	86	urgaci	313	349	garagarrila
79/436	90/126/187	trisca	254/280	350	Doneane
185	109	yrola	380/397	355	eusi
365	118	oñatu	?79	367	erigui
210/527	123/313/406/540	urena	303	379	narea
88	152	laso	211/262	382	ibarrac
290	162	maquerra	353	386	bicioa
156/279	171	ecandu	151/169...	387	guestoa
?393	176	gardia	174	392	orbana
33/247...	178	ipirdia	76/246	398	elicitura
182	180	ciya	410	400	biar, etzi, etziluma,
175	184	emaya			etzcaramu
233	185	iquedac ta	272	404	erac
		diqueada	398	413	loca ibilli
174	186	diada	33/82/253	418	ceja
141	188	gaso	349	419	ibarjauna
192	191	chircandea	372	431	esugui
120/408	200	ertuna	536	437	arean
168/248	201	guraria	75/?244	439	oparina
259	204	cimbota	166	448 [449]	seyzaroa
301	220/272	irachoa			[seyzarotu]
399	233	etsequi	?55/238/523	450	seya
341	235	jarrugui	335	459	saruc [_ bat uste,
243	237	ogena			[tresnatzen dauenac beste
299	245	galendu	215	460	equipidea
239/466	251	quibela	149	461	bearra
236	257	sasitu	69	468	lapicoa
260	262[263]	arbindu [arbina]	219	485	birapora
49/272/437	269/319/563	trancarta	291	505	ergarria
2/107/188/507	271	ospea	395	506	gogaya
242	273	ezaya	63...	506	gogo
249	275	asto	9	511	baraz
302	277	atzaga	241	520	celaya
265	292	donari	3...	521	chiroa
16	298	itoguina	25/329/493	521	arlota
19/179/305	301	oñon eguin	265	521	landerra
7/21/165...	303	gudua	238	528	atartea
344	314	jarrequin	388	536	palagadu
287	315	huruna	317	540	hurrena
319	317	jaraunsi	407	543/665	ecertu
220	318	parrahua	514	544	gondua
272	319	iac, iyac	339	547	gueidea
392/507	322	andizura	437	563	luquia

235	565	elia	101	<i>ezteguac</i>	380	<i>hueraguina</i>
370	573	izpizatu	107	<i>fresa</i>	384	<i>bicioa</i>
52 / 386	575	arritu	121	<i>seldorra</i>	425	<i>baldoquia</i>
279	582	arecha	123	<i>azquina</i>	426	<i>parapardiña</i>
217/?255...	585	otu	131	<i>coitiguia</i>	435	<i>balbea</i>
196/197	586	belorita	137	<i>acotatu</i>	445	<i>siracha</i>
159	589	laurembata	146	<i>gomburua</i>	451	<i>seyacaz echun</i>
239	595	aldiona	148	<i>millistu</i>		<i>dina ucuzcari</i>
367	601	cidorra	160	<i>erago</i>		<i>jaigui da</i>
289/481	604	cenzona	163	<i>zancabia</i>	458	<i>gorgolla</i>
366/?506	606	biaota	165	<i>gorta</i>	472	<i>garnua</i>
183	607	arrayo	174	<i>betzuloa</i>	484	<i>acizurria</i>
497	613	coicatia	181	<i>cicoza</i>	503	<i>galenda</i>
371/495	614	gueriza	189 / 458	<i>gargolla /</i>	508	<i>oldoztu, oldoz-</i>
373	628	chiriboguina		<i>gorgolla</i>		<i>queran</i>
210	634	lauzatua	194	<i>ortoza</i>	519	<i>cirarra</i>
37/214	650	irunsi	197 / 508	<i>oldozque-</i>	526	<i>nauquera</i>
404	653	meniac		<i>ra(n) / oldoztu</i>	554	<i>ollaquea</i>
201	656	ïusturia	236	<i>arana</i>	564	<i>arri iraztua</i>
39/115	658	grisolac	254	<i>zayoa</i>	574	<i>enquina</i>
299	660	ubera	256	<i>senguea</i>	581	<i>huarriza</i>
209	665	guebendu	258	<i>gortaisa</i>	583	<i>azaroa</i>
10/361/362	668	aspertu	276	<i>obua</i>	587	<i>abarescu</i>
220	669	jazquerea	280	<i>canora</i>	605	<i>eraitoquia</i>
?176/?478	673	oquelea	285	<i>lejarra</i>	609	<i>coya</i>
51/ 228 /485	677	matrazua	297	<i>mardula</i>	620	<i>ucuza</i>
207	680	ninteguia	302	<i>jagotu</i>	632	<i>zapotza</i>
?403	684	ideco dira	305	<i>guertaetu</i>	633	<i>erbatza</i>
21/275	689	cirola		<i>guertucatu</i>	635	<i>amarauna</i>
275	690	osquia	321	<i>meaca</i>	638	<i>orricac</i>
			335	<i>curea</i>	644	<i>urtiguin</i>
			338	<i>iztegia</i>	646	<i>gurdichapa</i>
			344	<i>guiraquea</i>	662	<i>ciorrea</i>
			351	<i>obuan</i>	670	<i>jazca.</i>
			365	<i>garchua</i>		

9. Eraskineko RS galdutikoak

E-n badira, Darmstadt-eko alekoe-tan ez azaldu arren, Mitxelenaren ustez etorki bereko direnak edo, gutxienez, izan daitezkeenak formaren edo geroko lekukotasunen arabera. On da ikuska ditzagun haien gainean Larramendiren bitartez Darmstadt-ekoari emenda geniezaiokeena jakiterik dugun aztertze⁹:

16	<i>achiti</i>	41	<i>tarua</i>
23	<i>cresala</i>	54	<i>ibiretu</i>
24	<i>osteleuria</i>	76	<i>azartu</i>
29	<i>emayenac</i>	89	<i>triscaria</i>
33	<i>pozcaria</i>	94	<i>done Matro</i>

Mitxelenak berak emandako egokitasunekin ari garela gogoratzea konpli bide da; beherago markatuko dugunez, litezkeen iturri-hautagaietarik zenbait adibide baino ez zituen hark eman, ordea, eta ezin espero sistema honen bitartez hau edo hura, hau ala hura, hobe, zehaztea: ez errefrau bat ezinbestez ezagun zuen Larramendik, ezta ezagaturik ere halabeharrez erabili behar zuen... Horrenbestez, ezta bildumaren tamaina ere; ikusiko dugu, aldiz, zerbait gehiago egiterik badela.

9. RS galdukotzat emanei Bizkaikotzat edota Mendebaldekotzat joak ere gehitzen dizkiet (ik. § 19 Eraskina) hauen eta besteen arteko mugak oso labainkorrak iruditzen baitzaizkit.

Ene kopuruak zuzen badira 810 hitz dira guztira *E*-n (319 «hielele, pegale, *iac*, *iyac*» bezalako bikoiztasun faltsuren bat kendu ondoren); horietarik 34 kendu beharra dugu behin baino gehiagotan forma eta esanahi berean berbarik ez zenbatzeko; ez dira hurrengo hogeita hamalau sarrerok kontuan sartzen behin edo gehiagotan errepikaturik direlako: 126 *triscac*, 153 *ontsatu*, 155 *arrantatu*, 187 *trisca*, 215 *gardia*, 232 *hisicatu*, 239 *escolatu*, 255 *buthuna*, 264 *marruscatu*, 272 *irachoa*, 296 *aurizquitu*, 310 *jolasturia*, 313a *urena*, 313b *azquina*, 346 *barrendaria*, 351 *obuan*, 366 *goratzapena*, 393 *arrantatu*, 455 *garraita*, 458 *gorgolla*, 466 *erra*, 471a *arrontera*, 471b *arranta*, 508b *oldozqueran*, 531 *behartu*, 536 *ozazt*, 556 *ecairac*, 619 *guertacuntza*, 629b *narrioa*, 631 *armora*, 640 *mendoza*, 660b *hurriza*, 676a *irisca*, 676b *urisca*.

Ezer baino lehen, 451.ekoa (erre-frau osoa) erabateko gutxiengoan dela markatu behar dugu, Harrieten «familier, *ausart*, *trebe*, *entregu*» (< Ax.) taiukoak bezala (cf. Lakarra 1994: 62) edota ia saratarraten erran komunak *E*-n legez. Nolanahi ere, nekez segurta daiteke bat baino gehiago erre-frau batetik hartu den eta zenbat. Beharbada, Darmstadt-eko alearen bitartez ezagutuetatik orriko bat az beste duen harraldia jakinik edo suposatuturik, hauek zenbatetik atera zitezakeen antzematen saia gaitzke –eta orriko erre-frau kopuru ertainaren arabera kopuru osoa– Mitxelenak egin bezala. Alabaina, horretara baino lehen duela mende laurden pasa (Mitxelena 1970 bereziki) hark egin ikerketetan zenbait zehaztasun beharko ditugu.

10. Azterketa berri baterantz

Ezaguna da, ikusi bezala, Darmstadt-eko alea amaiera gabea zela, beharbada inprenta lana amaitzeke aterea. Zaila badirudi ere, bada biderik Iruñean 1596an inprimatua bere osotasunean ezagutzen saiatzeko, edota ale hura baino osoago, behintzat, egiteko. Lehenago ere (cf. Lakarra 1991, 1993) adierazi dut testu baten, orobat hiztegi baten, eta haren iturriaren arteko erlazioa ez dela nahitanahiez zuzenbide bakarrekoa; simetrikoa izatera heltzea ezinezko bada ere, egokitasun sistemaren ezagutzak bata izanaz bestearen alderdi zenbait deribatzea dakarkigu inoiz.

Esaterako, badirudi hainbat eta aukera gehiago dukeela *Hiztegi Hirukoitzeko Eraskineko* hitz batek ez testu batetik, *RS* zein Axularrengandik, hartua izateko –bestelako, hots formazko edo semantikazko irizpiderik ez denean– zenbat eta Larramendik hura erabiltzeko behar, presa, edo beta gehiago izan. Alegia, bereizi egin behar da soilik behin, hiztegiatarik batean, adibide ez eratorririk gabe datorren Harrieten *Hiztegi*tako litekeen kide (ez-hapax) baten eta H-en bi hiztegietan, sarrera bat baino gehiagotan, eta, oraindik hobe, Larramendik hitz horri eman dion gaztele-razko itzulpenaren frantseseko kide formalean, erabilera adibide eta zenbait eratorrirekin inguratua den beste baten artean. Nabarmena iruditzen zait honelakoetan hiztegi batek edozein testuren aitzinean duen azalpen boterea.

Larramendiren *E*-ko lehendabiziko 352 sarreretan, lehen zatian, alegia, 14 dira gaztele-razko sarrera eta H-en

frantsesezkoa oso hurbiletik loturik direnak; halere, hauei 17 kontrajar dakizkieke zeinetan egokitasun hertsia hori betetzen ez den. Hau bada *E*-ko lehen zatiko joera ezinukatuzkoa, areagotu egiten da lanean jarraitu ahala eta ia erabateko bilakatzen amaierarantz: orain lehengo % 45 inguru izan beharrean % 90-91 aurkitzen dugu. Bi hizkuntza erromanikootan izan den eboluzio fonetiko eta lexikoa izan delako nolabaiteko hurbiltasun handiagoa izatea letra hauetako lexemen artean baliteke; halaz guztiz zenbakiok zirrikitu gutxi uzten diote lehen aurreratu diagnostikoari: presak eta amaitu beharrak hiztegegilea lehenago emaroago erabili testu-iturriak, duten aurrean nekosoagatik, utzi eta iturri errazagoetara, hiztegi-erantz jotzera eramanez; han ere, gainera, bertatik bertara bere egitekoa burutzen laguntzen zioten sarrera bereziak.

Ezaguna da familia diferenteetako hizkuntzen artean (latinaren eta euskararen edota latinaren eta galesaren artean, esaterako) izan daitekeen mailebatze prozesuak ez soilik mailebatzailearen historia eta historiaurrea baizik eta emailearen egitura edota kronologia ere argi ditzakeela: latinaren txistukariaren ahoskera edota diptongoen iraupena, demagun.

Hizkuntzalaritzako ohizko usadioen eradura, oraingo honetan iturriaren erabilerak testu-iturria bera, *Refranes y Sentencias*, neurri batean berreraikitzen lagun gaitzakeela erakutsi nahi nuke segidan adibide apal batez. Orain arte *RS E*-ren zenbait puntu, sarrera zenbaiten etorkia funtsean, azaltzeko baliatu badut, nago *E* baliatuaz ez soilik Larramendik egin haren erabileraz, baizik eta *RS*-i berari buruz zerbait jakin dezakegun.

11. Eraskinaren iturrien berrazterketaren eragina

Hiztegiaren Eraskinaren aitzin oharrean Larramendik dioskunez *HH*-ren inprimaketa bukatzean jaso zuen Bizkaiko misioetarik zetorren Kardaberratzengandik Vinson hasita *RS*-en aletzat jo izan den “kuaderno zahar” bat. Handik hiztegiaren ez ziren hitzak abondo hartu zituen Larramendik («con bastante prolixidad») eta zegozkien gaztelerazko sarreretan ezarri. Horrezaz landa «he añadido también otras muchas voces, que he oído en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buuelto a repassar con cuidado».

Gauzak honela Axular eta *RS*-erantz zuzendu beharra zegoen *E*-ren iturriak, nagusienak behinik behin, ikertzeko orduan eta bide horretatik abiatu zen Mitxelena (1970). Urrats bat gehiago ere eman zuen Larramendik, hitzaurrean hartaz esandakoen ondoren aitor horretan sartzea gogortxoegi edo iruditurik aipatu ez zuen Landucci ere hartzekodun egitean.

243 direlarik Axularrengandik hartuak (%31,13), 161 ezagutzen ditugu *RS*-eko zatietarik (%20,74), 129 *H*-tik (%16,62), eta 67 Landucciaren hiztegitik (%8,76). 9erentzat (%1,15) hautagai bat baino gehiago dugu ezagutzen diren iturrien artean, 47 *RS*-en zati galdutikoak izan daitezke (%6,05) eta 118erentzat (%15,20) ez dugu oraindik iturbururik. 1/6 da, Lakarra 1991-ko azterketaren ondoren *H*-k *E*-ren iturburuez argitzen duena eta, gainerako iturriei, Axularri bereziki, Mitxelenak egokitu mailebuak zehazteaz landa, erdira jaisten du etorki ezezaguneko sarrera kopurua. Halere, bada oraindik zer iker hondar hori agortzeko.

Orain (cf. Lakarra 1991, 1993), H ere *E*-ren hartzekodun berri bila-katzean, kontu garbiketa hura berrikusi beharrean gara. Zenbait kasutan H-en lekukotasunak ez du aldatzen lehen Mitxelenak emandako azalpena, nahiz hori ezagutu ondoren ere iturria ez delako gure irispidean, nahiz lehengo azalpena zeharka datorrelako (cf. Lakarra 1991: 243 hh.).

Bestalde, Mitxelenaren azterketa oso fina da, aldaezina guretzat, *E*-ko hainbat sarrerari *RS*-eko (edota Landucciren hiztegiko) iturria egokitzean: hara, esaterako, *E* 8ko *asacatu* hapaxa nola lotzen duen *RS*-eko 171.ekin («*Asiac eguina dirudi, / asacatuac eder* “Lo començado pareçe acabado, / lo acabado hermoso”»), edota forma eta itzulpena kontuan izanik *RS* 141 («*Guibleco on dana / areco gasso* “Lo que es bueno para el hígado / dañoso para el baço”») eta *E* 181 «*cicoza* “curiosa”» *RS*-en zati galdutik eta ez bestetik etorri behar duela erakustean.¹⁰

Baina, segurki badateke zer alda edo zer zuzen, are Mitxelenak *RS* eta Landucciren hiztegitzat dituenen artean ere:

«176. Cuidado, *gardia*.»

RS 393an «*Edoceynec edat ostean / dio vere gardia*, “cada cual después de beber / dize su parecer”» aurkezten du erkaketa-rako, nahiz eta gehiago komeni *E*-ko 215. sarrerari: «dictamen». Azkuek, hiztegiaren eraskin eskuizkribatuetan «anhelo» itzultzen du eta Lemoakotzat jotzen; hiztegian bertan «*garda* “fogosidad, afán”» dakar, Otxandioko eskuizkribuan eta Añibarro-rengan oinarrituaz. Edozein kasutan ere B-kotzat du.

RS-en galdutako zatian adiera horretan beste *gardia* bat izatea litekeena den arren, ez da hori *E*-koa azaltzeko bide bakarra, eta merkeago dugu H-en «*sérieusement, gardiacorqui*», «*sérieux, gardiacorra*» jotzea iturritzat, batez ere kontuan harturik baduela «*fidèle pour tenir le secret, gardiacorra*» ere. Ez zait ezinezko iruditzen hauetarik ateratzea Larramendik erroa; esanahia ere azalpen honen alde litzateke.

«661. Vagabundo, *ibildauna*.»

Ondokoa dio Mitxelenak bere iruzki-nean: «B-koa dirudi (*RS*-ekoa ote?) eta euskalki hartan soilik azaltzen den *ibiltau(n)*-ekin erkatzeko modukoa». Haatik, bere susmoak ez zihozaten bide zuzenetik, B-tik oso urruti baitu bere etorkia: H «*vagabond, ibildauna*.»

«103. Bollo, *opilla*.»

Mitxelenaren iruzkina: «Land. “bollo de pan”, *ogui opila*». Haatik, itxura batean hori bezain ongi, eta agian errazkiago, cf. *-ll-a*, har zezakeen Larramendik H-engandik: cf. «*masse, opilla*», «*la masse de sang, odol opilla*». Oihenartek ere badu 20 «*Amac irin balu opil balaidi* “Si ma mere auoit de la farine, elle feroit des gasteaux”» baina hiztegi iturriak hobesteko arrazoiak azaldu dira gorago, zabalago Lakarra 1991 eta 1993-n egin bidetik. Blanca Urgellek ereduko erdarena gogoratzen dit (*bollo* / **masa*), beharbada arrazoi osoz.

«274. Festividad, *eguzaria*.»

Mitxelenak Land. «*feria o fiesta, eguçaria edo feria*», «*fiesta de guardar, eguçari euchayteco*» uste du hartu duela L-k, erreferentzia soil horretaz landa bakarrik «cf. Ms 318 *eguzaria*, *añade eguzaroa*, *media fiesta*» baitu, mendebale-kotasuna bermatzeko asmoz gehitua, segurki.

Baina H kontuan hartuz geroz Land. ez da nahita nahiezko hartzekoduna: cf. H «*pezta, eguçaria, fête, f.*». Urrutiago joaz, egiantz gehiago du H-en aukerak, besterik

10. Proposamenen bat ezezagun edo iluntzat utzitako pasarteren batez ikus daiteke Lakarra 1995-n, esaterako, *E* 16ko *equis* hapaxa ongi itzulia (eta azaldua) den edota *E* 245 *inertu* “escarmentar” ez ote den *ulertu*-ren ustelketa.

ez bada ere *eguçari euchayteco* hori Larramendiri ez bide baitzitzaiokeen meziprezagarri begitanduko.

Inoiz H are lehenagoko hiru iturriren kontrakarrean dator:

«534. Prenda, *baya*.»

Mitxelenak litezkeen hiru iturri dakartza, L-k ezagutu eta erabilitako testu ezberdinetako bana: *RS* 523 «*Baguila, sey goseen bayla*, "Junio prenda muerta [*bay yla*] de los niño hambrientos", Land. «prenda, *vaya*» eta Ax 80 «Bahibat tabernara arnoçun igortcen duçunean, gaztigatcen dioçu tabernariari eduqui deçala cenbait egunez bahi hura». Baina badira Mitxelenak aipatu ez zituen Leiz Adv 2v, Ins B 4v, C5v, Materre 250, *Noelak* 120, 170, Gasteluzar 126 eta are Pouv *Imitacionea* III 54, Philotea 478, EtxSar 164, CatLav. 243.

H-ek gauzak ilunduaz aukera berri bat dakarkigu: «gage, *bahia*». Bi sarrera gorago egin gogoeten arabera Land. hobestera makurtu behar genuke baina ez segurtasun osoz.¹¹

Mitxelenak iturria —dela Axular nahiz *RS*, oso bestelako baitugu honetan Landucci (cf. Lakarra prestatzen)— asmatu duela onartzeko prest izaki ere, zehaztasun haboro lor daitekeela eta, ikusiko dugunez, inoiz are beharrezko dela ere pentsa genezake. Izan ere, *E*-ren azterketan sarrera bat baino gehiagotan esaten digu honako edo halako hitza Axularrek asko darabilela adibideren bat edo beste (gutxitan guztiak) emanaz edota bestelakoa mendebaldekoa dela eta *RS*-en ere badirela, bere txikian, zenbait adibide, hemen ere horietarik batzuk agertuaz.

Egia da 18 *arrantatu*, 21 *oratu* edota 178 *ipirdia*, 201 *guraria* bezalakoek ez dutela itxura batean askoz gehiago merezi lexikografiaren aldetik, hain baitira usukoak dagoeneko ezagun ditugun testuotan; alabaina, lexikografiari dagokiona ez bada gure interes bakarra, ezta nagusia ere, merezi bide du, gure iritzian, are sarrera horietan ere litezkeen iturri hautagaitzen artean erabakitzeak irizpideak izateak.

Mitxelenaren ikerketak gogoan izanik eta behar diren tokietan honako edo harako zuzenketak egin ondoren gelditzen zitzaigunarekin asetu nahi ez denarentzat, *RS*-eko errefracuetarik Larramendik zalantzarik gabe ezagutzen zituenak, ez gutxi gora behera, jakiterik ba ote? Nago badela entseiatu beharreko beste biderik zehaztasun asmo honetan; aurretiaz markatu nahi dut, ordea, ezin itxadon daitekeela segurtasun erabatekorik metodo honen bitartez soilik, eta ez duela aurreko lana hondatzen baizik eta suposatzen.

12. Saioak *RS* osoaren tamainaz: Darmstadt-ekoaren hurrenkeraz

Lehen saioa Darmstadt-ekoaren egiturari, errefracuen antolamendu eta hurrenkerari, so egitea genuke: ba ote horrelako ezer eta, izatekotan, ba ote inongo oinarririk hartan falta den zatiak izan zezakeenaz iharduteko? Zerbait bada, zalantzarik gabe: lehendabiziko orrialdeko errefracuak oro A-z hasten dira¹² eta O-z 64., azkeneko orrialdeko

11. Osoa ez bada, ia osoa egiten da *RS*-en 4. kuadernotxoan, ez bigarren edo hirugarrenean, azaltzen dela ikustean; ikus beherago eta Lakarra 1991, 1993 eta 1994 Axular H-k iturritzat —inoiz pasarte oso garrantzitsuak aipatuaz— erabiltzeak sortu arazo berezietz.

12. Ordena alfabetiko hertsirik (1. *Adi...*, 2. *Aberas...*, 3. *Aberassoc...*, 4. *Abendu...*) ezin eska, Euskal Herrian eta hemendik landa ere hiztegieta alfabetizazioa ez baitzen usuko bigarren letraz geroz (ik. Lakarra 1993, 1994 eta han aipatu bibliografia).

ia guztiak.¹³ Bigarren orrialdean bederatziren artean nagusi dira B-z hasten direnak nahiz eta A- bat eta beste E- bat izan eta B- eta C- dira, hurrenez hurren, hirugarrenean. Alabaina, A- da nagusi berriz (D- batekin) laugarrenean, B- bat eta C- ren gehiengoa 5.ean, eta –larriago dena– N- bi, bi M-, L- bi, bi V- eta F- bakarra ondoko 6.ean. Hortik aurrera, orrialde batzuetan letra honen edo horren gehiengoa izan arren, jauziak dira aitzin-gibel, bai orrialde berean, bai biren artean ere. Ni neu, bederen, ez naiz gai 64 orrialdeentzat balioko lukeen lege hertsia ez zabalik erideiteko.

Orobat diot Darmstadt-ekoan legerik izatekotan horren berme, neurriren batean bederen, etorri beharko luketen Oihenartek gorde zatikoez (ik. gorago). Aski bedi ondoko hurrenkera hau gogoratzea: *ynardun...*, *ojal...*, *vrineric...*, *salda...*, *huhuñenerean...*, *otu...*, *guiçon...*, *ecandu...*, *barria...*, *maya...*, *jaunen...*, *emazte...*, *maiaz...*, *garrastu...*, *bere...*, *gastelauna...*, *esquerac...*, *ene...*, *ilbeeran...*, *onerextea...*¹⁴

13. E-ko RS-en erabilera orokorraz: taulak

Ondoko taulan asteriskoek delako hitza –ezagutzen ditugun erretrauetan– soilik zenbaki horretantxe gordetzen dela adierazten dute; asteriskorik ez denean, aldiz, zenbaki horretaz at besteren batean ere azaltzen dela RS-en.

13. Salbuespena 532. *Saguac...* dugu; hemen ere alfabetizazioa ez da bigarren letrara iristen 531. *Oasun...*, 533. *Oroc...*, 534. *Otorde...*, 535. *Oçac...*, 536. *Hordia ganic...*, 537 *Ogui...*, 538. *Oso...* eta 539. *Ogui...*-ren aurrean.

14. Zalantzarik gabe, Oihenartek duen kopiatzeko modua “bigarren graduko desordena” deienezake; izan ere Darmstadt-ekoaren bitartez ezagutzen ditugunak ere ez ditu bere hartan ematen eta ezta ordena alfabetikoren batez ere, gorago ikusi bezala; ez da, beraz, harrigarrikorik testuko datuetan.

15. Gogora bedi Darmstadt-eko alea 539.ean amaitzen dela eta gainerakoak Mitxelenak Oihenarten aurkituak eta Larramendiren beraren bakarra direla (ikus Mitxelena 1967).

1. TAULA

1-100 bitartean: 2, 3, 7, *9, 10, *16, 19, 21, 25, 33, 34, 37, 39, 49, 51, 52, 55, 63, 64, *69, 75, 76, 78, *79, 82, 88, 94

101-200 bitartean: 102, 107, 115, 120, 141, 144, *149, 151, *152, 156, *159, *165, *166, 168, 169, *171, *174, *175, 176, 179, 180, 182, *183, *185, 188, 191, *192, *196, *197, 199

201-300 bitartean: *201, *207, *209, *210, 211, 214, *215, 217, *219, *220, 225, 228, 230, *233, *235, *236, *238, *239, *241, *242, *243, 244, 246, 247, 248, *249, *251, 253, 254, 255, *259, *260, 262, *265, *266, *272, 275, *277, *279, 280, *287, 289, *290, *291, *295, 298, *299

301-400 bitartean: *301, *302, *303, 305, *307, *313, 314, *317, *319, *321, *323, 327, 329, *331, *335, *339, *341, *344, *349, *353, *361, *362, *365, *366, *367, *370, 371, *372, *373, *379, 380, 381, *383, 384, 385, 386, *388, 392, *393, *395, 397, *398, *399

401-500 bitartean: *402, *403, *404, *405, *407, 408, *410, 413, 416, 419, *420, 422, 428, 435, 436, 437, 443, 450, 458, 466, 467, 468, 469, 478, 481, 485, 487, 493, 495, *497

501-560 bitartean: 506, 507, *514, 521, 523, 525, 527, *536, *541,¹⁵ 542, *544, 545, 547, 550, 558

Datuok esanguratsu izan daitezzen, erretrauak zein orrialde eta zein orritan doazen jakin beharra dugu; izan ere, badirudi zatika baino gordetzen ez zirenak lekat, erretrau bat hautagai bakar bilakaturik, orri horretakoak hobetsi beharra dugula hainbatik hainbatean

horrelakorik ez duten orrietakoen aurrean; hain zuzen ere errefrau horren segurtasunak orri osoarena (aurreko orrialdearena zein atzekoarena) dakar eta, beraz, bertako gainerrako errefrauak litezkeen hautagaiak dira *RS*-en behin baino gehiagotan azalduz geroz delako forma bat:

2. TAULA

Lehen kuad.	Big. kuad.
1: 1-5	17: 139-145
2: 6-14	18: 146-154
3: 15-23	19: 155-163
4: 24-32	20: 164-170
5: 33-39	21: 171-179
6: 40-48	22: 180-189
7: 49-56	23: 190-197
8: 57-66	24: 198-206
9: 67-73	25: 207-214
10: 74-82	26: 215-224
11: 83-91	27: 225-232
12: 92-102	28: 233-241
13: 103-111	29: 242-249
14: 112-120	30: 250-258
15: 121-130	31: 259-267
16: 131-138	32: 268-274

Hirug. kuad.	Laug. kuad.
33: 275-282	49: 413-419
34: 283-290	50: 420-426
35: 291-299	51: 427-434
36: 300-308	52: 435-440
37: 309-318	53: 441-449
38: 319-327	54: 450-457
39: 328-335	55: 458-466
40: 336-343	56: 467-473
41: 344-353	57: 474-482
42: 354-364	58: 483-490
43: 365-372	59: 491-499
44: 373-379	60: 500-508
45: 380-387	61: 509-515
46: 388-395	62: 516-522
47: 396-403	63: 523-530
48: 404-412	64: 531-539

Lehen taulak argiro esaten digu 150 eta 400.a bitarteko errefrau izarrez-tatuak gordetzen zituzten orrialde gehienak (17.etik 48.erakoak) bederen, guztiak seguruenik, ezagutzen zituela Larramendik, anitz baitira nahi eta nahiez haietarik hartuak. Hortaz, hamasei orrialdetako kuadernotxotan antolaturik izaki, Darmstadt-ekoaren bigarren eta hirugarren kuadernotxoek (17-32 eta 33-48. orrialdeek, hain zuzen) egiten bide zituzten Larramendik ezagutu 60 orrialdeetarik 32¹⁶.

14. Lehen eta 4. kuadernotxoak ezagutzen ote?

Halere, ez da gehiegi, oraindik beste 28 argitzea geratzen baitzaigu. Gogoratzen bagara, Larramendik berak dioskunez, irakur zitezkeen 60 orrialde bazituen behintzat bere aleak eta, dakigunez, 64 Darmstadt-ekoak. Honek ez zituenetatik zenbat izan zitzakeen Larramendirenak suposatzen hasi orduko komeni bide da hark Darmstadt-ekoan gordetakoiez egin erabilera zehatzago miaztea.

Lehendabiziko kuadernotxoari dago-kionez (1-16 orrialdeak, 1-138. errefrauak), esana dugu Larramendik ezagutu zuen alean Darmstadt-ekoaren 1.ko orria (1-14. errefrauak) behintzat, falta zela bertan baitzihoazen inprenta eta urteari buruzkoak. Esango nuke gehiago ere peitu zuela eta zerrenda osoaren (hots, litezkeen guztiak biltzen dituenaren) laburtasuna esanguratsua begitantzen zait. Areago dena, 9.a, 16.a, 69.a, eta 79.a (138tik 4 soilik) dira goiko taulan izartxoaren markarekin

16. 17.ak (139-145 errefrauak) eta 27.ak (225-232) Larramendiren arretra erakarri ez bazuten ere bere alean ziren, hauen gibleko 18.a (146-154) eta 28.a (233-241), hurrenez hurren, ederki baliatu baitzituen.

hornituak lehen kuadernotxoan;¹⁷ bigarreanean 35, ia bederatzi bider gehiago, eta hirugarreanean 44, ha- maika bider gehiago. Ikus ditzagun laurok ere xehekiago, orain arte esan- dakotik ez baita besterik gabe jarrai- tzen horiek L-k erabili egin zituenik eta, hortaz, horiek dituzten orriak, osotero edo zatika, ezagutzen.

Lehena (9.a, «*Açerrian lurra garraz hoña ybinieguic baraz* “En patria estraña la tierra es agra, el pie pondrásle espacioso- samente”») L-k ezin ezagut zezakeen kuadernotxo horren bitartez, lehen orrikoa baitugu; beraz, L-k RS-en bitartez ezagutu bazuen E-ko 511 «perezoso, *baraz*» Darmstadt-ekoak galdutako zatiren batetik ezagutu beharra zuen.¹⁸

16.a («*Betico itoguinac arria çulatu ta aldi luçeac guztia aztu* “Gotera continua piedra orada y el tiempo largo todo lo oluida”») E-ko 298 «gotera, *itoguina*»-ren iturburu genuke; alabaina esan beharrik ez da *itogin* ez dela RS-eko hitz arraroe- netarik, are gutxiago hapax bat. Litekeena da, hortaz, galdutako zatitik edo herritik, ahozko iturriren batetik eta ez idatziz- koetatik jasoa izatea.

Antzeko zerbait esan daiteke 69.az («*Lapico eçin dana estalgui liçate, çe edoceynec dauco vere lecuca vete* “Quien no puede ser olla podría ser cobertera, que cada qual tiene su lugar lleno”»); areago dena, E 468 «olla, *dipidia, lapicoa*» aztertzean Mitxelenak esan bezala «el segundo en RS 69... También en Land., a consecuencia de un divertido deslíz: ola del agua, *lapicoa*», hiztegi-iturriak hobes-

teko irizpideak hemen bere indar osoa hartzen duelarik.

E 367 «levantar, *jasan, jasaitu, eregui*»-ko azkenaren iturri Land. da, orobat, eta ez RS 79 («*Triscan badabil asoa aus asco eriguidaroa* “Dançando si anda la vieja mucho poluo leuantar suele”»): cf. Land. «leuantar otra cosa, *eregui veste gauça*», E-ko bokalarekin RS ez bezala.

Kontuak honela, lehen kuadernotik eta ez beste inondik nahita nahiez hartu beharrezkorik ez da bat ere; bestela esanik, ez da zer suposatu Larramendik lehen kuadernotxo hori ezagutzen zuenik –orri edo orri zati solteren bat gehienez ere– eta agian hobe hori ere ez onartzea: izan ere, Mitxelenak behin baino gehiagotan aipatu Larramendiren hitz ezezagunen zaletasunak nekez utziko bide zion 12 *hamquer* “cruel”, 14 «*labio* “rabicor- ta”», 15 «*balizco* “de si fuesse”»¹⁹ (16ko *itogin* aipatu arrunt horren alda- menean), 32 «*anbiolaco* “del tiempo pasado”», 49 «*trancart* “engaños”», 55 «*beçuz* “regala”», 65 «*ysusqui* “esco- ba”», 73 «*hendorea* “alcalde”», 82 «*çacoc* “para”» eta beste asko bazter- tzen. Zein nahi ere den begitazio honen aurrekoa gure iritzia, berreraiki- tzaileak ez du Darmstadt-eko liburua- ren lehen kuadernotxoaren inongo beharrik Larramendik E-n sartuak azaltzeko; *entia non sunt multiplicanda praeter necessitatem*, bada.

Goazen orain laugarren kuaderno- txora. Honek 49.etik 64.era bitarteko

17. Mitxelenak E 152 «como, *laso, leguez, bezala*»-ko lehenaz «el primero en RS 88» badio ere, 413 «*Guiçon gazteeen gogoa ecosaria lasoa* “El pensamiento del hombre jouen, del tamaño del aua” (4. kuadernotxoaren hasieran) eta, bereziki, 344 «*Hurriño ynaurra burua laso, jarrequin ezequida erricoa laso* “El nogal de lexos como la cabeça, mas no la allé como la de la patria”» hori bezain egoki ditugu E-koaren iturritzat.

18. Bidebatez, erdarazko ordainen artean ere («espaciosamente» / «perezoso») bada alde nahikoa jatorria testu berean izanik ere beste nonbait izan behar zuela suposatzeko.

19. E 622 «suponer, *balizcatu*» ez dator hortik, Mitxelenak proposatu bezala, Harrietengandik baizik: cf. Lakarra 1991, s.u. Ez bide da hau, bidenabar, bi Harrieten arteko erlazioak berraztertze- ko arrazoi bakarra.

orrialdeak eta 413.etik 539. errefraura bitartekoak besarkatzen ditu. Horieta-rik 420, 437, 497 eta 514 dira soilik 1. taulan izartxoarekin –hots, RS-eko beste inon ez direla E-n agertu hitzak adieraziaz– markatuak: lehen kuader-notxoan diren berak, halabeharrez, eta, han bezala, Larramendik kuader-notxo honen erabilera urria egin zuela agertzeko ezin adierazgarriagoak, zalantzarik gabe.²⁰

Lehena 420garren «*Hugazean edaten dana çerraldoetan essuro* “Lo que en la teta se beue en las andas se vierte”» E 48 «“andas de muerto, *zarraldoa*»-ren iturritzat hartzeari Mitxelenak ere dagoeneko zail irizten zion:

«Además de la diferencia en la primera vocal, sin embargo, lleva a dudar de que ésta sea la fuente precisa el hecho de que Larramendi no recogiera alguna palabra rara (*burrustu* “acometer”, *peco* “sospecha”) que figura en la misma página de RS» (1970: 59).

Orri bereko aurreko orrialdean ziren 418 «*yguini* “entiende”» eta 419 «*perrau* “hermitaño”» ere hor zituen.²¹

437 «*Luquiari trançart eguiteco gojtu bearco* “Para hazer engaño al raposo madrugar es menester”» genuke 563 «“Raposo”, *luquia*»-ren jatorria,²² halere ezin esan hapax batekin ari garenik eta ezta RS-en galdutako zatitik edota ahozko bizkaieratik jasoa ezin izan daitekeenik.

497 «*Esa jaunen saria ezta ayn coyçari çeyn dirudi* “La dádiua del duende no es

tan sobradíssima como parece”» eta 514 «*Etorri vadaquic billaetan doan gacha gondu daquiala* “Si te viene el daño que buscas prouecho te haga”»-n E 613 (*koikari*) eta E 544-n (*gondu*) hurrenez hurren bildu hitz bakanagoen aurrean gara²³ eta bidezkoena Larramendik erre-frauok ezagutzen zituela onartzea izan bide daiteke. Alabaina 497ko «*etsajaun* “duende”» ez baina *iratxo* etortzeak E-n s.u. eta 496ko «*gomonzalleac* “acomodador”» orrialde horretan eta 504 «*marraac* “joyas”», 505 «*nojala* “vaca que ha dos años que cría”» eta 506 «*zajagauzi* “deja-tiuo”» ez biltzeak zalantza izpirik sor lezake 497.az. 514ri dagokionez ulertzekoa da Mitxelenak inolako zalantzarik gabe errefrau hori ematea; orri berean agertzen diren 509 «*apizetan* “se hurta”», 510 «*calta* “daño”», 515 «*leloa* “canción”», 518 «*mergaz* “desabrida”», 522 «*soloy* “heredadiega”», eta «*vasoy* “montañero”» E-n ez biltzea halabeharri edota kuadernotxo honetan Larramendik presagatik edo beste zioen bategatik lan arinagoa eginari zorko litzaiokie.

Nolanahi ere den, azken kuadernotxotik halabeharrez hartutakoa azaltzeko gehienez ere bi errefrau, lau orrialde –edo orrialde zati–, behar ditugu. Gauzak honela, Darmstadt-eko aleak eta Larramendirenak goitik jota 36 orrialdetan egiten zuten bat; bigarrenak 60 orrialde irakurgarri (bestelakorik gehiago?) zituenez, Iruñean argitaratuak bazituen, gutxienez, Darmstadt-ekoari falta zitzaizkion 24. Logikoena bi kuadernotxo gehiago (32 orrialde, 272 bat errefrau) zituela suposatzea litzateke.

20. Izan bada han 536 «*Hordia ganic ençindu çe eguic arean* “De borracho no fies nada”» ere, baina E 437 «nada, *arean*» orobat atera zezakeen RS 558 (hots Darmstadt-ekoak ez baina bai Oihenartenak eta agian baita Larramendirenak ere gordetzen zuen) *Ilbeeran ereyn ceguic arean*-etik.

21. 220-ko *parrahua* E 318 «hermitaño, *parraüa*»-n izanik bigarrena hor ez sartzeta lehendabizikoa kanpo uztea bezain esanguratsu ez dela deritzonak gogora beza aldaerak behin baino gehiago ageri direla testu horretan; cf. Mitxelena 1970 eta Lakarra 1991.

22. Bada RS 64 «*Luqui cume azeri* “El hijo del raposo zorro”» baina ez dirudi hautagai hobeena denik gorago ikusitako lehendabiziko kuadernotxoaren erabilerean arabera.

23. Bigarrena lehena baino bakanago hasierako ahostunarekin Landuccirengan bildutako aldaera baitakar Mitxelenak, s.u.

E-n bai eta Darmstadt-ekoan ez diren beste lekukotasunetan gordetzen ez diren 53 hitz *RS*-en zati galdutik baletoz Mitxelenak (1970)-en susmatu bezala, antzeko zifretara iritsiko ginatke: bigarren kuadernotxoko erabileraren arabera (gutxienez 35 errefrau 16 orrialdetan) 24,2 beharko liriteke horkoen iturriarentzat eta 3. kuadernotxoaren arabera (gutxienez 44 errefrau 16 orrialdetan) 19,2 orrialde.

15. Azterketa 1.ko eta 4. kuadernotxotik hartu omen zirenen benetako jatorriez

Segidan Lakarra 1991 eta 1993-ko azterketa zerbaixka aldaturik Mitxelenak (1970) Eraskineko sarrera batzuekin egina eztabaidatzen eta zehazten dugu goiko gogoeten arabera, usu ez hautagai zerrenda baina bakarria ematea lortuaz; sarreretako zenbakiak *E*-ri dagozkio:

«6. Abril, *opea*».

Mitxelenaren iruzkina ondokoa dugu: «*RS 266: Opeco erlea eneçat / Mayacecoa anaieençat* “Enjambre de abril para mí / el de mayo para mi hermano”. En *RS 416*, casi igual al citado, se lee, sin embargo, *Opeileco herlea y Opeyl* “abril” se repite en el 129». Eta horrela dira gauzak, izan ere. Artikuluan aurkeztu analisirako ezin interesgarriago dugu datua, 416.a eta 129.a, hots Larramendik erabili ez zituenak, 4. eta 1.ko kuadernotxokoak baitira.

«29. Albricias, *emayenac*».

«Un hapax que por su formación recuerda otro de *RS 120 Barri ertunac vidarienic* ez “La mala nueva sin porte”» diosku Mitxelenak. Baliteke, baina Larramendik ez bide zuen 120.a ezagutzen; *emai*, ordea, erabat ezaguna da oraindik mendebalean eta *RS* galdua izan daiteke honen iturri.

«48. Andas de muerto, *zarraldoa*».

Mitxelenaren azterketa oso ongi bideratua genuen *RS 420eko çerral-doetan*-i bi aitzakia aurkitzen baitzizkion hautagai egokitzat: bokal diferentzia batetik eta orri berean agitzen diren zenbait hitz bitxi («*burrustu* “acometer”», «*peco* “sospecha”») Larramendik ez jasoak.

420.a 4. kuadernotxoko lehen orriko bigarren orrialdea delarik orain are sendoa goa iruditzen zait Mitxelenaren susmoa.

«60. Armas, *isquiluac, isquilosac*».

RS 7 «Bioça ta zençuna guduan dira bearrago ysquilluac baño “Coraçon y entendimiento en la guerra son más necesarias que las armas” (-*g*-a hutsa da, beraz) eta *RS 404 «Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi*, “por las treguas de Butrón no dexes las armas”». Mitxelenak markatu bezala ez dago ongi definitua hemendik landa azaltzen ez den hitz honen forma; bietarik bat bestearen ustelketa izatekotan badirudi errazago dela 1.koa izatea forma jatorra. Alabaina, 7.a 2. orrialdekoa (1. kuadernoaren 1. orri ezezagunekoa) dugu eta 48.ekoa (3. kuaderno oso erabiliaren azken orrikoa) bestea; beraz, ez 7.a baizik eta 404.a izan zen Darmstadt-ekoan gordeetarik Larramendik ezagut zezakeena; *isquilu*, horrela *RS* galdutik hartu zuen edota bera da ustelketa (eta ez alderantziz).

«64. Arrepentirse, *garbatu*».

«*RS 102: Ezcondu ta garbatu* “Casar y arrepentir”. En *RS 521* se repite *garuatua* “arrepentido”» dio Mitxelenak.

Alabaina, ez bata (1. kuad.) eta ez bestea (4. kuad.) ezagutzen zituen Larramendik gure azterketa zuzena bada. Hitza, gainera, ez da inolaz ere hapax eta edozein dotrinatan —zein herriko hizkeran— eriden zezakeen.

«134. Cesto, *zarampoa*».

RS Mitxelenak hitza Harrieten hiztegira igaro zela eta harengandik *B zaran*-en aldaeratzat aurkezten digun Azkuerenera diosku, «no es imposible que se trate no de una variante de *zaran* sino de una corrupción de éste» gehituaz. Alabaina hor

aipatzen duen *RS 34 «Zaran bat dagui-nac bi day “quien hiziere vn cesto hara dos”»* ez litzateke ustelketa horren iturbu-rua, erretraua 1.ko kuadernotxoan baita.

«152. Como, *laso, leguez...*».

RS 88 «Olaso guichibazuc ylaso “Olaso, pocos son como tú”» ematen digu Mitxelenak iturburutzat. Ez da hori, ordea, Darmstadt-eko alean aurkitzen den bakarra eta 3. kuadernotxoko 344.a bide da iturri zehatza 17. oharrean azaldu bezala.

Bigarrenari buruz «*RS 127, etc.*» dio eta izan ere beste edozeinek (195 eta 454, hain zuzen) luke orrialde horrek adina aukera; 195.a (2. kuad.) begitانتzen zait dela iturri zehatza eta ez 4.ekoa.

«200. Desdichado, *ertuna*».

RS 408 «Barri ertuna lelengo ençuna “La nueva desdichada la primera oyda”» ematen du Mitxelenak, *RS 120.ean* “mala” itzultzen dela gehituaz.

Gehi bekio orain 408.a 48. orrialdean dela (hirugarren kuadernotxoaren azkenengoan) eta 120.a 14.ean (lehendabiziko kuadernotxoan).

«220. Duende, *irachoa*» eta «272. Fantasma, *irachoa*».

Mitxelenak *RS 301 «Gassoto yrabacia / yrachoen da yracia “Lo mal ganado / es del fantasma exprimido”»* du iturburutzat, zuzen ene ustez; halaber, «En *RS 497* aparece *esa jaun* “duende”, que no recoge Larramendi» gehitzen du; harentzat anekdota markagarria izan daitekeena erabat normala digu orain azken hau 4. kuadernotxoan dela jakinik.

«251. Espalda, *quibela, acia*».

«El primero responde a *RS 466 Quibel eguioc ecachari* “Hazle espaldas a la tempestad” y 239 *Quibel ecachari / bular aldonari* “Espaldas a la tempestad / pecho a la buena sazón”» dio Mitxelenak, ekialdeko bigarrena nondikoa izan daitekeen ez dakiela gehitu aurretik (cf. Lakarra 1991: 234 honetaz).

466.a ez (55. orrialdean baita) baizik eta 239.a (bigarren kuadernoa) bide da iturri zehatza.

«269. Falsía, *trancarta*».

«*RS 49 Trancart eguiten deustac / ta vlerretan deustat* “Engaños me hazes / y te entiendo”. Con la misma trad., *RS 272*, abajo, 319, y, escrito *trançart* “engaño”, en el 437 (abajo, 563)» digu Mitxelenaren iruzkina.

Azken forma oraingoz utziaz, esan dezagun honetan ere pasa gaitzkeela 1. kuadernotxoko 49.ekoa gabe.

«271. Fama, *ospea*».

«*RS 2 Aberas yzayteabaño / hospe ona obeago* “Mejor buena fama / que ser rico”. Se repite en *RS 107*, 188 y 507, con o sin *h-*» dio Mitxelenak, alabaina, beharbada ez *RS 2-k* eta ezta *RS 107* (1. kuad.) ez *RS 507.ak* eta ezta hark aipatzen ez duen *RS 542 Vrrineric ospea, erricoa obea* (4.a) erretrauak ere ez digute balio. *RS 188* digu, beraz, hautagai bakarra; *h-* gabea digu L-rena bezala, bidenabar, horko «*Galbidi guizona / ta ez aren ospe ona* “Piérdase el hombre / y no su fama buena”».

«298. Gotera, *itoguina*».

RS 16 «Betico ytoquinac arria çulatu ta aldi luçeac guztia aztu “gotera continua piedra orada y el tiempo largo todo lo olvida”» da Mitxelenak dioena baina ez bide zen —ikus gorago— 3. orrialdeko hori jatorria Darmstadt-ekoan edota Oihenarten zati berrian besterik agertu ez arren. Hitza erabat arrunta da oraindik.

«301. Gruñir, *oñon eguin*».

«305 *Ydiac oñon bidean gurdiaç* “en lugar de gruñir los bueyes el carro”. También en *RS 19 Cantari guextoac oñon* “el mal cantor porfía” y *RS 179 Onec oñon eta ni ijilic egon* “Este hablando y yo callando estando”» ematen direla diosku Mitxelenak; zalantzarik gabe 2. kuadernotxoko 305.a da hautuena itzulpenagatik eta baita 19.a den kuadernotxoan delako ere.

«303. Guerra, *gudua*».

Mitxelenak itzulpen honekin ematen dela 7, 21, 165 eta bestetan (331 eta 383.etan, zehazki) markatzen du, Axularren ‘combate, pelea’-tik bereizteko

seguruenik; zalantzarik gabe *RS* bada ere jatorria, ez 7.a edota 21.a.

«322. Honor, *andizura*».

Mitxelena gaztigatu legez, *RS* 392 «*Emaytea andizuren arçaytea mingarri* “El dar es honor, y el tomar causa dolor”»-eko formaren ustelketa dugu. Berak *RS* 507 «*Dollorrapere andizurenen ospea / gora joacu ycaztobico quea* “Aún el más ruyn fama de principal / arriba se nos va el humo de la carbonera”» ere aipatzen digu baina testukoa hori gabe ere (4. kuad.) azal genezake.

«323. Hormiga, *inurria*».

RS 8 «*Ynurria guino lagun gura* “Hasta la hormiga desea compañía”» ematen du Mitxelena, «cf. además *RS* 183 y 326, pero también Land. tiene *ynurria* (2ª mano, *chinurria*)» gehituaz.

Artikuluko analisiaren arabera soilik *RS* 183 eta 326 lirateke hautagai eta, gainera, batak eta besteak hiztegikoaren aurrean amore eman behar dutela nago; cf. Lakarra 1991-n eman arrazoiak hiztegien iturritzat oro har beste hiztegi batzuk hartzeko.

«324. Hogar, *escaratza*».

RS 238 «*Seyac danzuana escarazean / esan daroa atarte*an “Lo que oye el niño en el fogar / suele decir en el portal”» eta “orobat” *RS* 469 «*Escaraz baco essea*, “casa sin fogar”» Mitxelena rentzat. Aski da lehena (2. kuad.) eta sobera 2.a (4. kuad.)

«326. Huérfano, *zurtza*».

«*RS* 199 y 450» da M-ren iruzkin soil. Bigarrena sobera.

«328. Huir, *ines, inesi*».

RS 422 *Ausso Chordon arzorri / ta nic yñes dayda* “Ten Hordoño a esse osso y yo haré huyda”» damosku Mitxelena; «cf. además *RS* 243» gehitzen du, beste sarrera batean (237) aipatua izaki.

Seguruenik, bigarrena dugu –«*Naztauenac ogenic, yñez begui guextoa ganic* “Quien no quiere engaño, haga huyda del peruerso”»–, ordea, iturri zehatza eta ez 4. kuadernotxoko 422.a.

«347. Jarro, *murcoa*».

RS 191 «*Hurtealango murcoa* “Qual el año tal el jarro”» ematen du, zuzen, Mitxelena, *RS* 94.ean “cántaro” itzultzen dela gehituaz.

Oraingoan ere 2.-3. kuadernotxokoa dugu beharrezkoa eta 1.-4.-ekoa desegokia.

«398. Mantenimiento, *elicatura*».

RS 76 «*Banabil burua ezin sinisturic / erasuna elicaturazat arturic* “ando no pudiendo creer la cabeça / la locura por mantenimiento tomando”» eta *RS* 246 «*Oguiagaz hura / oragaz heroen elicatura* “Pan con agua mantenimiento de loco y mastín”» ematen ditu Mitxelena iturburutzat. Biek itzulpen bera izan arren 246.a hobesten dugu iturritzat bestea Darmstadt-ekoaren lehen zatian delako. Ikus behe-rgo 542. sarrera ere.

«418. Mercado, *ceja*».

«Ocorre en *RS* 33, 88 y 253» dio Mitxelena. Lehen biak 1.ko kuadernotxokoak izaki, 253.ak dirudi iturri zehatza.

«437. Nada, *arean*».

RS 526 «*Hordia ganic ençindu ce eguic arean* “De borracho no fies nada”» damosku Mitxelena, «*arean* ‘(nada) algo’; *arean ez*, ‘nada’» eskuizkribu batekin zuzenduaz.

Bada, ordea, *RS* 558 *Ilbeeran ereyn ceguic arean* ere Oihenartek (eta agian Larramendik) ezagutu zatian. Bestalde, orduan eta gero ere hitza herrikoia zen eta, beraz, Mitxelena aipatu 4. kuadernotxokoa ez da erabat beharrezko.

«439. Necesidad, *oparina*».

«*RS* 75 *Oparinac nenguian bearguin / ta alperqueric auzquin* “La necesidad me hizo obrero, y la vagamundez pleytista”. Hay también *oparinac* en *RS* 244, pero con la misma traducción, se lee *opanari*, dativo, en el 78 y *oparayna* en el 140»; honaino Mitxelena. Ohar bekio 244koak sarrera azaltzeaz landa gure analisiak 78 eta seguruenik 140.ekoa (2. kuadernotxoko 1. orrialdea) E-n zergatik agertzen ez diren aurreratzen digula.

«468. Olla, *dipidia, lapicoa*».

«El segundo en *RS 69 Lapico eçin dana / estalgui liçate* “Quien no puede ser olla / podría ser cobertera”. También en Land., a consecuencia de un divertido desliz: “ola del agua, *lapicoa*» diosku Mitxelenak.

Testuan gorago gogoratu eta Lakarra 1991-n azaldu arrazoiengatik hiztegiari eman beharko litzaioke lehentasuna iturri gisa.

«505. Pendenciero, *ergarria*».

«Cf. *RS 291 Eguia ergarria* “La verdad causa riña”, y 443 *Ese usa ergarri / ta vetea pozcarri*, “La casa vazía causa de riña y la llena causa regozijo» dakar Mitxelenak. Bigarrena 4. kuadernotxoan baina 2.ean lehen.

«506. Pensamiento, *gogoya, gogoa*».

Lehena gaizki zatitua dela gogoratu ondoren *RS 395 «Gaba gogayeren ama* “La noche, madre de los pensamientos”» aipatuaz, bigarrena *RS 63* eta beste askotan datorrela diosku Mitxelenak, iturri zehatza zein den erabakitzea ezinezkotzat joaz.

Alabaina, «*gogoa* “pensamiento”» *RS 63, 398, 413, 419, 458* eta «*gogoco* “de mente”» *RS 381* dira Soto-Michelenak (1978-79, s.u.) ematen dizkigun agerraldi guztiak eta Mitxelenak uste baino zehaztasun gehiago egin ditzakegu orain: *RS 63, 413, 419* eta *458.ak* aukeraketatik landa dira 1.ko edota 4. kuadernotxokoak izatearren eta, seguruenik, baita *RS 381* ere itzulpenagatik. Beraz, *RS 398-k* ditu aukera guztiak hain hitz arrunt eta ezagun honen iturri izateko; are gehiago sinonimoa hiru errefrau gorago harturik.

«511. Perezoso, *baraz*».

RS 9 «Açerrian lurra garraz / hoña ybinieguic baraz “En patria estraña la tierra es agra / el pie pondrásle espaciosa-mente”» da Mitxelenaren soluzioa.

Baina, gorago esan bezala, Larramendik ezin ezagut zezakeen testu horren bitartez lehen orrikoa baitugu; beraz, *RS-en* bitartez ezagutu bazuen Darmstadt-ekoak galdutako zatiren batetik ezagutu beharra zuen; Cf. 18. oharra.

«521. Pobre, *chiroa, arlota, landerra*».

Lehena *RS-eko* hainbat lekutan dela (esaterako 3 «*Aberassoc jaya daude / chiro gajooc veti neque...* “Los ricos tienen fiesta / y los pobres cuytados siempre trabajo...”») diosku Mitxelenak eta orobat bigarrena (25, 329, 493). Hirugarrena iturri bereko 265 «*Ondo eguioc landerrari / layncoac diquec donari* “Haz bien al pobre / dar te ha Dios galardón”».

Azkena soilik pasarte horretan har zezakeen eta den kuadernotxoan delarik Larramendik orrialde hori ezagutu zuela badakigu: beste bi hitzei dagokienez Mitxelenak baino zehatzago izaterik bada: *chiroa* ez zen *RS 3-tik* hartu noski eta ezta *chiro* 435etik, ez *chiroac* 467, 493tik eta ezta *chiroari* 78tik ere; hots gelditzen zaigun aukera bakarra 314 *chiro* dugu.

Arlota-ri dagokionez ere 329.a dugu hautagaia eta ez beste biak.

«534. Prenda, *baya*».

RS 523 «Baguila, sey goseen bayla “Junio prenda muerta de los niños muertos”» damosku Mitxelenak baina Landuccik («prenda vaya») eta Axularrek ere (80, etab.) badutela gaztigatuaz.

523. errefrau 4. kuadernotxoan izaki eta hiztegi-iturriek duten lehentasuna kontuan izanik, Land. bide da hemengo iturria.

«542. Probar gustando, *elicatu*».

Mitxelenak Axularren zenbait pasarte hobesten ditu *RS 57-ren* aurrean, honen esanahia ‘mantenerse’ baita; haren arrazoiari errefrauaren kokapenarena gehi gienezaioke orain.

«563. Raposo, *luquia*».

Ikus gorago 14. atalean *RS 437*.

«575. Reñir, *arritu*».

«*RS 52*, muy semejante al 386: *Unayoc arri citean / gastaec aguir citean* “Los pastores riñieron, los quesos parecieron”» diosku Mitxelenak; dagoeneko azaldu arrazoiengatik 386.ekoa bide da iturri zehatza eta ez 52.ekoa.

«582. Roble, *arecha*».

RS 279 «*Arecherean artera / ecandu gaxtoa arçaytenda* “Del roble al eñino / se toma mala costumbre”» ematen du Mitxelenak iturritzat, zuzen, RS 37 eta 109.ean «bellota» itzultzen dela gehituz.

Azken biak 1.ko kuadernotxoan direlarik orain badakigu zergatik Larramendik ez zuen bildu itzulpen arraroago hori.

«604. Seso, juicio, *cenzona*».

RS 289 «*Hule luzea ta cençun chaburra* “Cabello largo y seso corto”» dakar Mitxelenak, RS 481ean ere itzulpen bera dela markatuaz, RS 7ko «entendimiento»-ren aurka.

481.ekoa beharrezko ez delarik sarrera azaltzeko, RS 7 zergatik jaso ez zen ere ezagutu dugu orain.

«614. Sombra, *gueriza, itzalgaizca*».

RS 371 «*Gextoac on jaunen guerizan* “Los malos, buenos a la sombra de los señores”» eta RS 495 «*Edo ceyñ hulec bere gueriza* “Cada qual pelo su sombra”» aurkezten ditu Mitxelenak lehenaren iturritzat; aski dugu lehenarekin noski.

«645. Tizón, *supita, ichindia*».

Mitxelena ohartua zen dagoeneko RS 32 «*Anbiolaco supitac eguiac* “Refranes del tiempo pasado uerdades”» itzulpenaren aldetik urruti gelditzen zela sarrerakotik; orain bere tokia, 1. kuadernotxoan alegia, gehi genezake, ia erabat ezinezko eginaz bere hautagaitza. Izatekotan ere galdutako zatitik.

«650. Tragar, *irunsi*».

RS 37 «*Caden charriac arech obea yrunsi* “El cochino torçuelo traga la mejor bellota”» eta 214 «*Ysasoac errecaac / yturriac ta ybayac yrunsi* “La mar traga los arroyos, los ríos y las fuentes”» ditu Mitxelenak iturritzat; bigarrena soilik onar genezake, noski.

«658. Turmas, *grisolac*».

RS 39 eta 115 dakartza Mitxelenak iturritzat baina biak direlarik 1. kuadernotxoak beharbada RS galdutik hartua dugu edota agian 115. hori Larramendiren alean gorde orri edo orri zatietan zen.

«668. Vengarse, *aspertu*».

«RS 10 *Aspertu banequio asper lequi-quet* “Si me lo yo vengasse vengarse meya”. También RS 361 y 362» dio Mitxelenak.

Azken biok dira (361 «*Sayra noçu asper çaquidaz* “en la buytrera me teneyts uengasme”» eta 362 «*Sayra noçu asper[r]jetan gach eztoçu* “en la buytrera me teneyts no os será difícil el uengaros”»), jakina, litekeen iturri bakarra Darmstadt-eko alean gordeen artean, bestea Larramendik ezagutu ez zuen orrian baita.

«673. Vianda, *gondura, oquelea*».

Lehena urrutiegi dela bilduman agertu «*gondu* “provecho”»-tik eta bigarrena RS 176 («*Escurean haora / oquelea galdu doa* “De la mano a la boca / la tajada se suele perder”») eta RS 468n («*Catuac darocean oquelea / gueyago da vereã çe ez eurea* “La tajada que lleua el gato / más es suya que no tuya”») ematen dela dio Mitxelenak (1970, s.u.).

Aski genuke 2. kuadernotxoko 176.arenkin 4.eko 468.a gabe.²⁴

«677. Virote, *matrazua*».

Mitxelenak «RS 51 *Vrdeen buztanez / matraçu onic* ez “De rabo de puerco / no buen birote” casi igual al 485 (*Charri buztanez*): la voz ocurre con igual traducción en el 228» diosku.

Bada, itxura guztien arabera 228.ekoa dugu eta ez 1.ko eta 4. kuadernotxoko beste biak, benetako iturria.

«689. Zapatero, *cirola*»

Mitxelenak RS 21 «*Zitel zirola, noc gudura aroa* “pusilánimo çapatero quién te

24. Alabaina, Blanca Urgellek gogoratzen didan bezala, E-n benetan datorrena *oquelia* dugu, -i rekin. Nik Mitxelenaren irakurketa jarraitu dut hemen besteetan bezala eta litekeena da forma hau Larramendiren hutsa izatea; HH-ean s.u. «carne» badu dagoeneko *oquela* eta *gondura* agertzen da s.u. «vianda».

lleua a la guerra”» eta 275 «*Aroz dinean çirola osqui guichi vr[r]atudoa* “quando el çapatero se haze carpintero pocos çapatos se desgarran”» dakartza.

Bigarrena izan daiteke soilik iturri eta gainera horrek erraztuko luke hurrengo çarrera («690. Zapato, *osquia*») ere 275. errefracatik hartua izatea.

16. Darmstadt-eko alean ez diren zatiez eta behin-behineko ondorioak RS osoaren tamainaz

Goian Oihenarten alearen tamainaz eta bertan izan zitezkeen Darmstadt-ekoan gorde zatiez aritzean 17,7 orrialde edo atera zaizkigu, liburua 16ko kuadernotxoka antolaturik izaki kuadernotxo bakar bat (136 bat errefracu) ala bi (272 bat errefracu) ezezagun²⁵ gehiago izan zitzakeen ezin erabakirik, hurbilegi baita gutxi gorabeherako kopuru hori kuadernotxo bakarraren orrialdeetarik. Ez genekien ezta kuadernotxo eta errefracu horiek Larramendirenak zituen berak ziren ala bestelakoak. Azken puntu hau garrantzitsua dugu zeren eta, batera ala bestera izan, Iruñeko osoa Darmstadt-ekoaren 539 ezagunetarik *gutxienez* 800 inguruko edota 1000tik gorako ikusia izatera iritsiko bailitzateke.

RS-eko zati galdukotzat Mitxelenak aipatu E-ko hitzen eta Oihenartek gorde aleko 20 errefracuen azterketa bide da auzi hau erabaki bidean sartzeko lanabes sendo bakarra. Segidan ematen ditut berriz bi lekukotasunok.

Errefracuei zenbakuntza berria (TAV-eko) jarri diet:

540. *Ynardun badaguic ez doquer [sic] besterenic.* “Si continuas en el trabajo, no tienes necesidad de otro”;
541. *Ojal ona huchan saldu doa;*
542. *Vrrineric ospea erricoa obea;*
543. *Saldabaga altamia oza[.]tan ez dilist[.]ia;*
544. *Huhuñenerean hoxtuac bulea;*
545. *Otu doneari ygarartean nequea;*
546. *Guiçon onac azcurriac bere;*
547. *Ecandu gasstoari bernea ausi;*
548. *Barria eder eguic;*
549. *Maya ta vide lucea gastigaturic* (enseñança);
550. *Jaunen hotua oy da aguindua;*
551. *Emazte dollorren jaubea jopu;*
552. *Maiaz ozac dacaz pozac;*
553. *Garrastuadi icasterren ta neca adi euterren.* “Suffre por aprender y trabaja por tener”;
554. *Bere burhua ezautea da jaquitea;*
555. *Gastelauna neguia senar oñean arr ta beguian negar;*
556. *Esquerrac yndauz ce onderexta ene gauçary;*
557. *Ene laba aldian labefa] jausico zan;*
558. *Ilbeeran ereyn ceguic arean;*
559. *Onerextea dodan lecuán jarri daquidala egusquia.*
- E-ko hitzei dagokien erdal çarrera jarri zaie²⁶:

16. Adelante, *achiti.* B-M.
23. Agua salada, *cresala.* B, RSgald.
24. Agua de tempestad, *osteleuria.* Goiherri, B ?
29. Albricias, *emayenac.* RSgald.
33. Alegría, *pozcaria.* B.
41. Amarilla, *larua.* B, RSgald.
54. Aplacar, *ibiretu.* B ?
76. Atreverse, *azartu.*
77. Atrevido, *azarria.*
89. Bailador, *triscaria.*
90. Baile, *trisca, tritea.*
94. Bartolomé (San), *done Matro.* B ?
101. Bodas, *ezteguac.* RSgald.
107. Cabezón, *fresa.* RSgald.
121. Carga, *seldorra.* RSgald.

25. Mitxelenak RS-ekotzat jo hogeiaik barne, noski.

26. (?) = Iturri ezezagunekoa; B = Mitxelenak bizkaieratzat ematen duena; M = Mitxelenak mendebalekotzat emana; RSgald = Mitxelenak RS-en galdutako zatikotzat proposatua.

123. Casera, hacendosa, *urena*, *azquina*. RS 210; RSgald.
131. Cena, *coitiguia*, B ?
137. Citar, *acotatu*, B ?
146. Colmo, *gomburua*. RSgald.
148. Comedirse, *milistu*. B ?
160. Continuar, *erago*. B.
163. Corba, *zancabia*. B.
165. Cortijo, *gorta*. B.
174. Cuenca de los ojos, *betzuloa*.
181. Curiosa, *cicoza*. RSgald.
187. Danza, *trisca*.
189. Degolladero, *gargolla*.
194. Descalzo, mal vestido, *orthusa*, *ortoza*. (?); RSgald.
197. Descuido, *oldozquera*. RSgald.
236. Endrina, *arana*. RSgald.
254. Espera, *zayoa*. B.
256. Estéril muger, *senguea*. RSgald.
258. Estiercol, *gortaisa*. RSgald.
276. Fiel, equilibrio, *obua*. RSgald.
280. Forma, manera, *canora*. B /L.
285. Fresno, *lejarra*. RSgald.
297. Gordo, grasiento, *mardula*. M.
302. Guardar, *jagotu*. RSgald.
305. Guisar, *guertaetu*, *guertucatu*. RSgald; RSgald.
321. Hijada, *meaca*. B ?
335. Inclinación, *urea*. M ?
338. Ingle, *iztegia*. RSgald.
344. Inquieto, *guiraquea*. B ?
351. Justo, al justo, *obuan*. Vide 276.
365. Lentisco, *garchua*. RSgald.
380. Lindero, *hueraguina*. RSgald.
384. Lombriz, *bicioa*. RSgald.
425. Mollera, *baldoquia*. B.
426. Molleja, *parapardina*. M.
435. Muerte, *balbea*. B.
445. Nervio, *siracha*. RSgald.
451. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina ucuzcari jaigui da*. RSgald.
458. Nuez de garganta, *gorgolla*. RSgald.
472. Orina, *garnua*. RSgald.
484. Papera, *acizurria*. RSgald.
503. Peligro, *galenda*. RSgald ?
508. Pensar, *oldoztu*. Sin pensar, *oldozqueran*. Vide 197.
519. Plata, *cirarra*. RSgald.
545. Buen provecho, *essé*. (?).
554. Puta, *ollaquea*. B.
564. Rayo, *arri iratzua*. RSgald. ?
574. Rencor, *enquina*. RSgald.
581. Ribera, *huarriza*. RSgald.
583. Rocío, *azaroa*. RSgald.
587. Roso y belloso, *abarescua*. RSgald.
605. Sienes, *eraitoquia*. RSgald.
609. Silla, *coya*. Cf. 131.
620. Sucio, *ucuza*. Cf. *ucuzca*.
627. Sustento, *saralea*. M.
632. Tapón, *zapotza*. B.
633. Tasco, *erbatza*. M.
635. Telaraña, *amarauna*. B.
638. Tenazas, *orricac*. RSgald.
644. Tirar, *urtiguin*. B.
646. Toalla, *gurdichapa*. B ?
662. Vara, *ciorrea* [*ciorra*]. B.
670. A medio vestir, *jazqui*, *jazca*. RSgald; id.

Badirudi Larramendi presatua zela 540 *ynardun*, 543 *altamia*, *dilist(..)ia*²⁷, 549 *gastigaturic*, 553 *euterren* eta besteren batez ez ohartzeko; Oihe-nartek ere oso alper edo beldur behar zuen izan, testu elebidunaren aurrean, Larramendik Darmstadt-eko alean ez baina Iruñeko aldez osoagoan irakurri eta E-n ezarritako 16 *achiti*, 23 *cresala*, 24 *osteleuria*, 33 *pozcarria*, 41 *larua*, 76 *azartu*, 101 *ezteguac*, 107 *fresa*, 121 *seldorra*, 123 *azquina*, 131 *coitiguia*, 146 *gomburua*, etab. edota 451 *seyacaz echun dina ucuzcari jaigui doa* bezalako pasarteetarik²⁸ halabeharrez ere bakar bat ez hartzeko. Alabaina, Blanca Urgellek gaztigatzen didan legez, Oihenart erretrau bila ari zen, ez hitz bila.

27. Ez bide zuen RS 50 *tilista* ezagutu ahal (cf. gorago) eta ez du E-n biltzen; baina bada «*dilistea* "lenteja"» E-n s.u., nahiz eta Landuccirengandik hartua izan. Hortaz ez zuen —ezaguturik ere— Oihenartek jasoa bildu beharrik.

28. Litekeena da zertxobait etorkizunean baztertu beharra RS-eko zati galdutik ez baina ahozko euskaratik edo beste iturriren batetik hartuak balira; nago, ordea, gutxi horiek argudioaren funtsa nekez uki dezaketela.

Gauzak honela, Mitxelenak *E* 58ko *hucha* Oihenartek ezagutu *RS*-eko zati galduaren bidez (541 *huchan*) azaltzen duelarik, eta hapax baten aurrean garela edota ezinezko dela galdutako kuadernotxoetan bat baino gehiago izatea²⁹ ezin esan bada ere, *E* 356 «ladrón, *uhuna*»-rekin (cf. *RS* 544 *huhuñerean*) biltzen badugu ezin esanguratsuagoak iruditzen zaizkit bai grafiagatik, bai (cf. Lakarra 1991) grafia horretara heltzeko *RS*-en bide zuenetik ezarri zitzaizkion aldaketei dagokienez. Oihenartek dakarren *RS* 546 *azcurriac* Mitxelenak nahi bezala (1970: 111) «*aciçurriac* “paperas”» irakurri behar bada *E* 484 s.u.-n egin legez, edota –gorago mantendu dugun bezala– *arean* ez Mitxelenak eman *RS* 526 «*Hordia ganic ençindu çe eguic arean* “De borracho no fies nada”»-tik baizik eta *RS* 558 *lbeeran ereyn ce-guic arean* Oihenartek ezagutu zatitik baletor, arrazoi are sendoagoak genituzke pentsatzeko Oihenartek eta Larramendik, partez bederen, *RS* galduaren zati berberak ezagutu zituztela edota, zehatzago, galdutako zati beraren arrastoak baino ez zizkigutela utzi. Datuon aurrean Larramendik eta Oihenartek, galdutako zatiaren bi kuadernotxo, 32 bat orrialde, gehiagoren berri ematen digu (Larramendiren aleak zituen 60 orrialdeetara iristeko Darmstadt-ekoaren 2. eta 3.az landa behar genuena, hain zuzen), Iruñeko orijinal osoak 96 orrialde eta 759 bat errefrau behintzat bazituelarik.

17. Excursusa. *RS* *Hiztegi Hirukoitzaren gorputzean?*

Galdera batekin amaitzen nuen aurreko lan batean (Lakarra 1991) Harriet eta Larramendiren erlazioaren azterketa: H eta *E*-ren artean ikusitakoaren nolakoa ikusi ondoren, ongi ulertu izan ote da L-k *HH*-ren hitzaurrean (xxxv. or.) H-z esandakoa?

Acaba de imprimirse una Gramática de Bascuence, y Francés, por su Autor Monsieur Harriet, con muchas curiosidades, y un Diccionario cortito del Bascuence, y Francés, todo en octavo; cuyas voces con otras, que le faltan de su Dialecto, se hallarán en mi Diccionario.

Itxura batean badirudi zenbait lerro beherago deskribatzen eta epaitzen duen Landucciren hiztegiarekiko juzku gaizto bera errepikatzen dela hemen ere; hots, H ez zaiola batere baliagarri gertatu bere urrian, hura ateratzera-koan inprimategian edo harako bidean zuen bere hiztegian bilduak baitzituen dagoeneko han diren eta bertan falta diren iparraldeko hitz anitz. Bat edo beste peitu zituela konturatuaz inprimaketa amaitzerakoan, berriz H-ra bihurtu eta hango zenbait hitz jasoko zituen *E*-n.

Haatik, dagoeneko bagenuen itxura eta sasiaitorretan ez gelditzeko ziorik eta emaitza onik izan nuen (cf. Lakarra 1991, 1993, 1994) H aldamenen ezarririk *HH* barrena ostera txiki bat egitea erabaki nuenean:

29. Blanca Urgellek gogoratu bezala, bazen *ucha* / *cucha* *HH*-aren gorputzean s.u. *arca*: «esta voz la tomó sin duda el latín de el bascuence *arca*, con que significamos los arquetones muy grandes, a diferencia de las arcas menores, que llamamos *cuchá*, *uchá*...». Berak diostan legez, seguruenik *uchá* aldaera *etymologiae causa* asmatua dugu beste anitzetan legez (cf. Urgell, prestatzen). Nolanahi ere den, gertakari honek sendotu baino ez du egiten testuko azalpena.

Agradable, [otzana, onirizgarria, emaguria], *naicaria* : agreable, *nahicaria*.

Agrio, [gacia], *miña*; agrura, acrimonia, [gacitasuna], *mintasuna* : aigre, *miña*; aigreur, *mintassuna*.

Apetencia, apetito, [gogoá, naya, ganá, zalea, trempea], *jambidea* : appetit, *janbidea*.

Arrogante, [arrota, arrutia], *furfuiatsua* [facatia, antusteduna] : arrogant, *furfuiatxua*.

Auditor, *aditzallea* [enzunlea] : auditeur, *aditçaillea*.

.....

Banquete, *jatequeta*, [oberaria, oturunza, bonaza] : banquet, *iatequeta*.

Bañar, [ureztu, urtan sartu], *maiñatu*; [busti, baño, [bañua], *maiñua*, [urezguitia, bustialdia] : baigner, *maiñatcea*; bain, *maiñhua*.

Barbero, [bizarquiña], *bizarguillea*, [bizarquenlea, bizarmochallea] : barbier, *biçarguillea*.

Bestia, [aberea], *abrea*, *atzienda*; bestialidad, [aberequeria], *abrequeria*, [aberetasuna] : bête, *abrea*, *atcienda*; bêtise, *abrequeria*.

Blanqueador, *churitzallea*, [zuritzallea] : blanchisseuse, *churitçaillea*.

.....

Cadaver, *gorputzilla*, [illotzá] : cadavre, *gorpuzhilla*.

Capricho, [hisia, burutacinoa], *burcoitasuna*; [burujaira], caprichoso, [hisitia, burcoitsua], *burcoitsua* [burujaira (sic)] : caprice, *burcoitassuna*; capricieux, *burcoixua*.

Carnoso, *araguitsua*; carnal, *araguicoia*, [araguitarra] : charnu, *haraguitssua*; charnel, *haraguicoia*.

Carpinteria, [arozquintza, zuarozquintza], *zurlana*; carpintero, [arotza, zuarotza], *zurguina* : charpentier, *çurquiña*, *maistrua*; charpenterie, *çurlana*.

etab

Horrenbestez Larramendik Harriet HH-aren gorputzean bertan, ez soilik E-n, erabili zuela baieztatzen zen, huts bateratzaile pareá ere horren alde zetorrela. Lehena: L-k «caza de aves,

ihiza», «cazador, *ihiztaria*», «cazar, *ihiztatu*» dakartza; < h > horiek, hitz barneko kokagune horretan, ez dute zalantzarik uzten iparraldeko iturri idatziren batetik hartuak direla, beste askotan bezala gorde duelarik puntu horretan iturburuaren grafia: cf. «chasser, *ihizatcea*», «chasse, *ihicia*», «chasseur, *ihiztaria*». Bigarrena H «bagatelles, *chirehilqueria*» L «bagatela, *chireilqueria*» da, iturburuko formaren zuzentasuna emandakotzat joaz, mailebatzailea < h > kentzera mugatuaz.

Nago bazela E-ko Harrieten erabilerran H eta HH-aren azterketa erkatua eskatzen zuen arrazoi formalik: Larramendik E-n egindako H bere iturriaren erabilera mia bagenezá, ohartuko bide gináteke erabilera hori ez dela bat eta bera E-ren zati guztietan. Segidan ematen dut osoan edo zatika H-ren bitartez azaldu E-ko sarreren multzoa:

5, 12, 15, 18, 26, 31, 66, 75, 79, 96, 103, 105, 125, 138, 144, 149, 150, 154, 156, 157, 169, 171, 175, 176, 195, 196, 203, 227, 247, 251, 259, 261, 264, 266, 270, 332, 333, 352, 362, 368, 370, 372, 373, 376, 377, 379, 391, 401, 405, 407, 409, 410, 413, 423, 428, 433, 436, 446, 452, 460, 462, 463, 464, 465, 470, 481, 487, 489, 491, 496, 497, 498, 499, 502, 507, 509, 510, 522, 523, 527, 532, 533, 534, 538, 551, 552, 593, 594, 600, 603, 608, 610, 611, 616, 617, 622, 624, 625, 629, 643, 645, 649, 655, 656, 657, 659, 661, 671, 672, 674, 675, 676, 678, 680, 686.

Ene kopuruen arabera 10 dira lehendabiziko 100en artean, beste 16 dira 100.etik 200.era, 9 hortik 300.era, 12 handik 400.era 26 gero 500.era, 15 hortik 600.a bitarte eta beste 27 akaburengo 691.era arte. Honek berez ez zukeen beharbada gauza handirik

adieraziko, aldakorra izaten baita usu iturri erabilera, are testu bakarrean ere. Alabaina, § 10.ean ikusi bezala, hiztegi-gilea iturriko erdararen eta berak sarreratzat erabiliko duen erdararen arteko hotskidetan baliatzen delarik hitz bat sartzeko edo kanpoan uzteko, eta frantses-euskara delarik iturri nagusi –ia bakar–, azaldu beharreko bilakatzen zaigu *E*-ko lehen zatian 37 baino ez izatea *H*-tik jasoak bigarreneko 68ren aurka; hau da, *E*-ren bigarren zatian *H*-ren erabilera ia lehendabizikokoa halako bi izatea. *E*-ren erdia 395-396.ean jarri beharrean zertxobait aurrerago 329-330.ean jar bagenez are bistakoago litzateke 1.koaren eta 2.goaren arteko desoreka: hogeita bost larogeiren kontra.

Esango nuke badela arrazoi erabat praktikoa honela gerta dadin: moldiztegi-proba zuzenketak ezagut ditzanak badakike azken orduko gehiketak ez direla ematen hein berean liburuaren zati guztietan, eta ez soilik (edota, ez batez ere) gehitu beharren arabera ihardun ohi delako; presak eta aukerak zuzen gehiago izan ohi dute. Ez ote zen horrelakorik gertatu *Hiztegi hirukoitz*-ean ere? Bai ene ustez: 329.ean amaitzen dira *E*-n *h* letraren sarrerak eta 330.ean hasten *i*-renak; bada, *Hirukoitz*-ean *h*-ak amaitzen du lehen liburukia eta *i*-ak hasten bigarrena. Ez ote da *E*-ren bigarren zatian areagotuko *H*-ren erabilera dagoeneko *HH*-aren gorputzeko lehen liburukian handik sartu nahi zuen gehiena sartua zuelako baina ez aldiz bigarren liburukian? *HH*-era bihurtu eta *H*-ren erabilera sistematikoago ikertuaz hara zer eriden dezakegun:

dardo, *dardua*, *azagaya*, *chochoa* : dard, *chochoa*.
decidir, *debedi*, *debeditu*, *erabaqui*, *erabaquitu*, *trencatu* : decider, *trenquatcea*.

diezmo, *amarrena*, *dechema* : décime, dixme, *hamarrena*, *detchema*.
defecto, *gabenda*, *utsaldia*, *itena*, *baia*, *faltá*, *escasa* : défaut, *baia*, *escasa*.
disgustar, *higuindu*, *hastandu*, *descus-tatú*, *mincaistu*, *irasartu* : dégouter, *higuincea*, *hastancea*; disgusto, enfado, *higuintza*, *descustua*, *minca-cha*, *ira*, *chimicoa* : dégout, *higuiñça*.
.....
efecto, *ecarraya*, *eguicondea*, *econdea* : effet, *eguiñqunde*.
elección, *auta*, *autesá*, *autacunza*, *auquera*, *iracurtza* : election, *hauta-qunça*.
entendimiento, *aditza*, *adimentua*, *adiera*, *adiquiña*, *adiaira*, *centzua* : entendement, *adimentua*.
emprender, *mellatu*, *equigotu* : entreprendre, *mellatcea*.
entrada, *sarrera*, *sarcunza*, *sarbidea*, *sarrilguia*, *sartzea*, *barrutea*, *barrende* : entrée, *sarrilguia*, *sarqunça*, *sarbidea*.
.....
fácil, *erraza*, *eguincara*, *aisa* : facile, *eguiñcara*, *errecha*.
familia, *familia*, *echadia*, *diapea*, *mainada* : famille, *maiñada*.
famoso, *famatia*, *famatsua*, *deitatu*, *ospetsua*, *otsandiduna*, *omenduna* : *leloxua*, *deithatua*, *ospexua*.
fantasía, *irudiquiña*, *oldea* : fantaisie, *oldea*, *fantasia*.
fuego, *sua* : feu, *sua*; fuegos por fiestas, *suberriac* : feu de joye, *suberria*.
.....
guante, *achorroa*, *escularrua*, *guantea* : gans, *escularruac*.
generoso, *motalaya*, *ecarguiña* : gene-reux, *ekharguiña*, *biçarroa*.
genio, *manua*, *ancia*, *ancea*, *etorquia* : genie, *maiña*, *ancea*.
gesto, *gesticulación*, *queñua*, *higuidura*, *siñua*, *eguiramua* : gestes, *higuidurac*.
gentilhombre, el noble, *ezcutaria*, *aitorensemea* : gentil homme, *aitorensemea*.
.....
historia, *condairá*, *esagaroa*, *lempiztea* : histoire, *condera*, *istorioa*.
honestidad, *honestasuna* : honnêteté, *onestassuna*.

horrible, *lardazquigarria*, *higuingarria* : horrible, *higuingarria*.

humilde, esta y la voz latina *humilis* vienen de el bascuence *humilla* o *umilla*, que significa lo mismo, y *humilla* sale de *hume illa*, criatura apagada, y como muerta, y es lo que oportunamente, se dize de el humilde. *Umilla*, *manuguña*, *etorcorra* : humble, *manuguña*, *umilla*, *ethorcorra*.

Lakarra 1991 eta 1994-n H-renarekin bezala, E-n egin RS-en erabilera baliatzen saiatu behar genuke bertan izan litekeen distribuzio arrarotasunen baten aurrean erabileraren nolakoaz eta, bigarren graduan, Larramendiren RS-en alearen izaera edo tamainaz zerbait ateratzeko asmoz.

Emaitzek, ordea, espero baino are berdintasun handiagoa islatzen dute *Hirukoitz*-aren *Eraskin* osoan zehar: beste iturriarekin, Harrietekin, ikusitako desorekaren aurka, 61 hitz dira I-letra arte RS-etik hartuak, 16 Mitxelenaren ustez RS-en zati galdutik eta 37 etorki

zehatzik gabe emanak; handik eta amaierara 64 RS-ekoak, 16 RS-en galdutako zatikoak eta 37 etorki zehatzik ez dutenak.³⁰

Horrenbestez, –eta gogora bedi Larramendik dioenez kuaderno zaharra azken orduan baino ez zuela eskuratu– ez da arrazoi berezirik RS-en eragin apartekorik *Hirukoitz*-aren gorputzean, ez lehen alean ez bigarrenean itxadoteko eta izan ere ez dut egin dudana azterketan oraingo honelakorik lortu; abian diren ondorengo lanek (Urgell-prestatzen, esateko)

izango ahal dute ideia hauek baieztatzeko edo ezeztatzeko aukerarik.

18. Ondorioak

Aurreko lan batzuetan bezala (ik. Lakarra 1986 eta 1990 RS-en testukritikaz eta 1991 eta 1993 HH-aren E-z), honetan ere helburu metodologikoak izan ditugu, testukritikaren metodologiazkoak, hain zuzen. Izan ere, testu bateko honako edo harako hitzaren jatorrizko pasarte zehaztea lexikografoei ez bide zaie lan premiazkoa edota presa gorria begitanduko; seguru asko inoiz osorik eskuratuko ez dugun ustezko testuaren osotasun teorikoa erdiestea hain guti.

Testukritika ikersail autonomotzat edota berariazko intereskotzat dugunok, aldiz, Mitxelenak bere lan ezagunetan bi alorrotan (Mitxelena 1961, 1967, 1970, 1978-79) erdietsi emaitzak euskal testu tradiziorako oso garrantzitsu direla ikusirik, miatu nahi izan ditugu, duten segurtasuna pisatu eta azaleratzeko eta etorkizunean beste antzeko saioren batean berregiteko aukera izan dadin.

Lan honetan itxura batean lehendik egindako eta, gainera ederki burutu-tako RS-en eragina Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-aren *Eraskin*-ean berrikusten da; orobat horrekin neurri batean lotua den Iruñean argitaratzen hasi zen eta Darmstadt-eko ale bakaurrean osorik ez zen errefrau bildumaren tamainaren arazoa. Iturrien, bereziki hiztegien, azterketa formala, ez atomista, beharrezkotzat agertu

30. Zifra hauek Mitxelenaren ikerketari artikulua honetan egin orrazketen ondokoak dira eta RS-ekotzat hark jo eta nik bestelako azalpenik eman kasu orotan testuan espreski eztabaidatzen da; etorki ezezagunetakoetarik argiro ekialdeko diruditen hiru (478. «Pajar, *aozteguia*»; 479. «Palmo, *cehea*»; 480. «Palma de la mano, *escueda*») kendu dira. Nolanahi ere, ez dirudi azken hauek pisu handirik izan dezaketarik batera zein bestera.

zitzaigun Lécluse eta Harriet (cf. Lakarra & Urgell 1987, etab.) aztertzean bi hiztegien alderdi bien arteko diferentzia nabarmenez ohartzean edota *HH*-ren *E* eta Harrieten artean zirenak ikustean; azken honetan, esaterako, hain asimetrikoa zelarik *H*-en eragina *E*-n, ezinbesteko gertatu zitzaigun *HH*-ren gorputzean horren osagarri (eta azalpen) izan zitekeenik agitzen zen miatzea. Era horretako hurbilketak emaitza onak eman zituen, ene usteko; orain *RS*-en eragina “simetrikoa” delarik *E*-n, horrelatsu izan behar dela *HH*-ean ere proposatu dut: hots, ez dela arrazoi berezirik itxadoteko lehen liburukian bigarrenean baino handiagoa / txikiagoa izan dadin. Eta nago –ondoko ikerketek izan bezate hau zehazteko aukerak hutsaren hurrengo dela bai batean eta bai bestean.

Bana banako iturri azterketari aitzki edo horren lagungarri, egiturazko azterketa proposatzen dut; hots, *RS*-en egitura –kuadernotxotan antolatua– kontuan izatea ezinbesteko iruditzen zait liburu horrek izan zezakeen zabalkundea eta, bereziki, *E*-n izan zuen eragina zehazteko; eragin horren egitura ere oso interesgarri begintzen zait iturriaren tamaina (eta egitura) asmatzeko. Ene usteko, goiko tauletan laburtu azterbideak balio berezia du iragazki legez prozesu honetan, Mitxelenaren proposamen anitzen artean diskriminatzeke eta batzuk ezinezko (arrazoi semantiko eta formalengatik, *RS* barneko kokapenagatik, bereziki) eta besteak ez litezkeenetarikoa baizik eta beharrezko eta bakar bilakatuaz.

Testu emailearen barneko antolamendua giltzarri gertatzen zaigu

31. Laburduretako ikus 26. oharra.

Mitxelenak kasu berezirik egin edota etekin handirik atera ez bazion ere: Larramendik 1. eta 4. kuadernoak ez zituela funtsean ezagutzen –edota berreraiketarako haien lekukotasunik ez zigula utzi– frogatu ahal izan dugula esango nuke eta hortik, haren lekukotasunik izan dezakeen garrantziaren arabera, Iruñekoa osatzeko oinarriak ere lehen baino sendoago ikustea: Darmstadt-ekoak gorde ez zituen zatietarik Oihenartek eta Larramendik bi kuadernotxo gehiago bederen ezagutu zituztela esan baikenezake.

19. Eraskina: *RS Hiztegi Hirukoitzaren Eraskinean*³¹

Ondoren datorrena 8-9. ataletan bildu Mitxelenaren emaitzen ene berrikuskapenaren ondorioak dira. Irakurlea ohartuko denez, ez da Larramendiren *RS*-ekiko zorra handitzen (ezta gehiegi gutxitzen ere [cf. halere 48, 60, 64, 134, 298, 323, 468, 511, 534, 563. sarrerak]) baizik eta zehazten (ez beti erabat [cf. 27, 201, 303, 355, 382, 387, 585], baina bai gehienetan [6, 152, 200, 220, 251, 269, 271, 305, 322, 324, 326, 328, 347, 418, 437, 439, 506, 521, 534, 575, 582, 604, 614, 650, 668, 673, 677, 689]) *M*-k aurkeztu aukeren artean gorago atondu dugun azterketa formala ezarriaz.

6. Abril, *opea*. *RS* 266.

7. Abundoso, *liscoa*. (?)

8. Acabarse, *asacatu*. *RS* 171.

16. Adelante, *achiti*. De aquí adelante, *equix*. *B / M*; *RS* 331.

20. Agacharse, *uzcurtu*. *RS* 251.

21. Agarrar, *oratu*. *RS* 144.

23. Agua salada, *cresala*. *B*, *RS*gald.

24. Agua de tempestad, *osteleuria*.
Goiherri, *B* ?

27. Alagar, *leusindu*. RS 295, 372.
 29. Albricias, *emayenac*. RSgald.
 33. Alegría, *pozcaria*. B.
 37. Alquilar, *alogadu*. RS 388.
 39. Amante, *oneretsia*. RS 242.
 41. Amarilla, *larua*. B, RSgald.
 43. Amor de la lumbre, *sutanza*. RS 323.
 58. Arca, *hucha*. RS 541.
 60. Armas, *isguiluac, isquilosac*. RS 404.
 65. Arrojar, *urtigui*. RS 405.
 74. Atolladero, *luparia*. RS 367.
 76. Atreverse, *azartu*. RSgald..
 77. Atrevido, *azarria*. RS 383.
 78. Atrevimiento, *azarcunza*. RS 165.
 86. Ayudar, *urgaci*. RS 339.
 94. Bartolomé (San), *done Matro*. B ?
 101. Bodas, *ezteguac*. RSgald.
 107. Cabezón, *fresa*. RSgald.
 109. Caduco, *irola*. RS 185.
 118. Cansar, *oñatu*. RS 365.
 121. Carga, *seldorra*. RSgald.
 123. Casera, hacendosa, *urena, azquina*.
 RS 210; RSgald.
 131. Cena, *coitiguia*. B ?
 137. Citar, *acotatu*. B ?
 146. Colmo, *gomburua*. RSgald.
 148. Comedirse, *milistu*. B ?
 152. Como, *lasoleguez*. RS 344; RS 195.
 160. Continuar, *erago*. B.
 162. Contrahecho, *maquerra*. RS 290.
 163. Corba, *zancabia*. B.
 165. Cortijo, *gorta*. B.
 171. Costumbre, *ecandua*. RS 156.
 180. Cuña, *ciya*. RS 182.
 181. Curiosa, *cicoza*. RSgald.
 184. Dádiva, *emaya*. RS 175.
 185. Darasme y derete [sic] he, *iquedac, ta diqueada*. RS 233.
 186. Darete, *diada*. RS 174.
 188. Dañoso, *gaso*. RS 141.
 191. Dedo meñique, *chircandea*. RS 192.
 194. Descalzo, mal vestido, *orthusa, ortoza*. (?); RSgald.
 197. Descuido, *oldozquera*. RSgald.
 200. Desdichado, *ertuna*. RS 408.
 201. Deseo, *guraria*. RS 164, 248.
 204. Desperdiciador, *cimbota*. RS 259.
 220. Duende, *irachoa*. RS 301.
 233. Encender, *etsequi*. RS 399.
 235. Encontrar, *jarrugui*. RS 341.
 236. Endrina, *arana*. RSgald.
 237. Engaño, *ogena*. RS 243.
 245. Escarmentar, *inertu, galendu*. RS 299.
 251. Espalda, *quibela, acia*. Cf. RS 239; H.
 254. Espera, *zayoa*. B.
 256. Estéril muger, *senguea*. RSgald.
 257. Estercolar, *sasitu, sastu*. RS 236.
 258. Estiercol, *gortaisa*. RSgald.
 262. Estrechar, *arbindu*. 263. Estrecho, *arbina*. RS 260.
 269. Falsía, *trancarta*. RS 272.
 271. Fama, *ospea*. RS 188.
 273. Fea cosa, *ezaya*. RS 242.
 275. Fiador, *astoa*. RS 249.
 276. Fiel, equilibrio, *obua*. RSgald.
 277. Fin, postre, *atzaga*. RS 302.
 280. Forma, manera, *canora*. B /L.
 285. Fresno, *lejarra*. RSgald.
 292. Galardón, *donaria*. RS 265.
 297. Gordo, grasiento, *mardula*. M.
 301. Gruñir, *oñon eguin*. RS 305.
 302. Guardar, *jagotu*. RSgald.
 303. Guerra, *gudua*. RS 165, 331, 383.
 305. Guisar, *guertaetu, guertucatu*.
 RSgald; RSgald.
 314. Hallar, *jarrequin*. RS 344.
 315. Harina, *huruna*. RS 287.
 317. Heredar, *jaraunsi*. RS 319.
 318. Hermitaño, *parraña*. RS 220.
 319. Hiérole, pégale, *iac, iyac*. RS 272.
 321. Hijada, *meaca*. B ?
 322. Honor, *andizura*. RS 392.
 324. Hogar, *escaratza*. RS 238.
 325. Hozar, *induscatu*. RS 379.
 326. Huérfano, *zurtza*. RS 199.
 328. Huir, *ines, inesi*. RS 243.
 330. Igual, *burquidea*. RS 295.
 335. Inclinación, *curea*. (?)
 337. Inexcusable, *maemana*. RS 307.
 338. Ingle, *iztegia*. RSgald.
 341. Infructuoso, *jaibala*. RS 341.
 344. Inquieto, *guiraquea*. B ?
 347. Jarro, *murcoa*. RS 191.
 349. Julio, *garagarrilla*. RS 313.
 350. San Juan, *Doneane*. RS 254.
 354. Ladrar, *eusi*. 355. Ladrado, *eusia, sainga, auná*. RS 380, 397; Ax 426; Land.
 356. Ladrón, *uhuna*. RS 544.
 365. Lentisco, *garchua*. RSgald.
 379. Linage, *narea, bernagea*. RS 303.
 380. Lindero, *hueraguina*. RSgald.
 382. Llanos, valles, *ibarrac*. RS 211, 262.
 384. Lombriz, *bicioa*. RSgald.

386. Malamente, *galduro*. RS 353.
387. Mala, *guestoa*, *deunga*. RS 151, etab; RS.
398. Mantenimiento, *elicatura*. RS 246.
400. Mañana, *biar*. Después de mañana, *etzi*. Dos días después, *etziluma*. Tres días después, *etzicaramu*. RS 410.
413. Menearse, *loca ibilli*. RS 398.
418. Mercado, *ceja*. RS 253.
419. Merino, juez, ministro, *ibarjauna*. RS 349.
425. Mollera, *baldoquia*. B.
426. Molleja, *parapardina*. M.
431. Morder, *esugui*. RS 72.
435. Muerte, *balbea*. B.
437. Nada, *arean*. RS 558.
439. Necesidad, *oparina*. RS 244.
445. Nervio, *siracha*. RSgald.
448. Niñada, *seizaroa*. RS 449. Niñar, *seizarotu*. RS 166; 450. Niño, *seya*.
451. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta, *Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da*, RS 560.
458. Nuez de garganta, *gorgolla*. RSgald.
459. Obero, overo caballo, *saruc*. Y el refrán, *saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste*. RS 335.
460. Obligación, *eguipeida*. RS 215.
461. Obra, *bearra*. RS 149.
472. Orina, *garnua*. RSgald.
484. Papera, *acizurria*. RSgald.
485. Papo, *birapora*. RS 219.
505. Pendenciero, *ergarria*. RS 291.
506. Pensamiento, *gogaya*, *gogoa*. RS 395; RS 398.
519. Plata, *cirarra*.
520. Plaza, *celaya*. RS 241.
521. Pobre, *chiroa*, *arlota*, *landerra*. RS 314; RS 329; RS 265.
528. Portal, *atartea*. RS 238.
536. Prestar, *palagadu*. RS 388.
540. Principal, *hurrena*, *aurrena*. RS 317; G-GN.
543. Prohibir, *ecertu*. RS 407.
544. Provecho, *gondua*. RS 514.
545. Buen provecho, *essé*. (?)
547. Próximo, *gueidea*. RS 339.
554. Puta, *ollaquea*. B.
565. Rebaño, *elia*. RS 235.
573. Renegar, *izpizatu*. RS 370.
574. Rencor, *enquina*. RSgald.
575. Reñir, *arritu*. RS 386.
581. Ribera, *huarriza*. RSgald.
582. Roble, *arecha*. RS 279.
583. Rocío, *azaroa*. RSgald.
585. Rogar, *otu*, *oyutu*. RS 217, etab.; LE.
586. Rollo, *belorita*. RS 196, 197.
587. Roso y belloso, *abarescua*. RSgald.
589. Sábado, *laurembata*. RS 159.
595. Sazón, *aldiona*. RS 239.
601. Senda, sendero, *cidorra*. RS 367.
604. Seso, juicio, *cenzona*. RS 289.
605. Sienes, *eraiptoquia*. RSgald.
606. Siesta, *biaota* [*biaoa*]. RS 366.
607. Síguete, *arrayó*. RS 183.
613. Sobrado, abundante, *coicatia*. [*coicaria*]. RS 497.
614. Sombra, *gueriza*. RS 371.
627. Sustento, *saralea*. M.
628. Tabernero, *chiriboguina*. RS 373.
632. Tapón, *zapotza*. B.
633. Tasco, *erbatza*. M.
634. Texado, *lauzatua*. RS 210.
635. Telaraña, *amarauna*. RSgald.
638. Tenazas, *orricac*. RSgald.
644. Tirar, *urtiguin*. B.
645. Tizón, *supita*, *ichindia*. ?; H.
646. Toalla, *gurdichapa*. B ?
650. Tragar, *irunsi*. RS 214.
653. Treguas, *meniac*. RS 404.
656. Trueno, *iusturia* RS 201.
658. Turmas, *grisolac* (?).
660. Vado, *ubera*, *huerriza*. RS 299; ikus 581.
662. Vara, *ciorrea* [*ciorra*]. B.
665. Vedar, *ecertu*, *guebendu*. Ikus 543; RS 209.
668. Vengarse, *aspertu*. RS 361, 362.
669. Vestido, *jazquerea*, *jazcaya*. RS 220; (?).
670. A medio vestir, *jazqui*, *jazca*. RSgald; id.
673. Vianda, *gondura*, *oquelea*. (?); RS 176.
677. Virote, *matrazua*. RS 228.
679. Vitoria, *gurenda*. RS 308.
680. Vivero, *ninteguia*. RS 207.
684. Uno, son para en uno, *ideco dira*. RS 403.
689. Zapatero, *cirola*. RS 275.
690. Zapato, *osquia*. RS 275.

Bibliografia

- Azkue, R. M^a. (1905-06): *Diccionario vasco-español-francés*, 2. arg. eraskin batekin, Bilbo 1969.
- , (1923-25): *Morfología vasca*, 2. arg. Bilbo 1969.
- , (1935): "Evolución de la lengua vasca", *Euskera*, 57-120.
- Garibai, E. (1858): *Memorias*, Academia de la Historia, Madril.
- Gorostiaga, J. (1953): *Vocabulario del Refranero Vizcaíno de 1596*, Salamanca.
- Gorrochategui, J. (1987): "Andrés de Poza y y el euskera", *ASJU* 21/3, 661-681.
- Lafon, R. (1943): *Le système du verbe basque au XVIème siècle*, 2. arg. Donostia 1980.
- Lakarra, J. A. (1984a): *Euskal Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak (1700-1745)* [tesina argitaragabea], EHU, Gasteiz.
- , (1984b): "Bertso bizkaitarrak (1688)", *ASJU* 18/2, 89-184, eta "Bertso bizkaitarrez gehixeago", *ASJU* 20/1, 243-248.
- , (1985a): "Larramendiren hiztegegintzaren inguruan", *ASJU* 19/1, 9-50.
- , (1985b): "Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)", *ASJU* 19/1, 235-281.
- , (1985c): "Berriz Larramendiren segizioko zenbaitez", *ASJU* 19/2, 439-452.
- , (1986a): "XVI. mendeko bizkaierazko erretrauez: I. Garibairen bildumak", *ASJU* 20/1, 31-66.
- , (1986b): "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* 20/3, 639-681.
- , (arg.), (1988a): *Hiztegiak eta testuak*, EHU-ren Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- , (1988b): "Testukritikaz: I. Stemmarantz" in Lakarra (arg.) 1988a.
- , (1988c): "Testukritika ez mekanikoaz" [eskuizkribu argitaragabea] EHU, Gasteiz.
- , (1990a): "RS-en testukritikazko arazoak: Hernán Núñezengandik itzulia ote? (XVI. mendeko bizkaierazko erretrauez II)", in E. Perez & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*, Mundaiz, EUTG, 177-190.
- , (1990b): "Epílogo (1989)", in L. Michelena & I. Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. *ASJU*-ren Gehigarriak 11, Donostia, 353-62.
- , (1991): "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", in id. (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, (*ASJU*-ren gehigarriak, 14), Donostia.
- , (1993): *XVIII. mendeko hiztegegintzaren etorkiez*. [Doktorego tesi argitaragabea], EHU, Gasteiz.
- , (1994): *Harrieten gramatikako hiztegiak (1741)*, *ASJU*-ren Gehigarriak 18, Donostia.
- , (1995a): "RS-en etorkiaz. (XVI. mendeko bizkaierazko erretrauez IV)", eskuizkribua, EHU, Gasteiz.
- , (1995b): "RS-en zenbait pasartez. (XVI. mendeko bizkaierazko erretrauez V)", eskuizkribua, EHU, Gasteiz.
- , (1996): *Refranes y Sentencias (1956)*. *Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia [argitaratzeaz].
- , (prestatzen): "Landucci eta Larramendiren Eraskina: begiratu berri bat".
- Larramendi, M. (1745): *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia. 2 lib. Berrarg. faksim. Txertoa, Donostia, 1984.
- Mitxelena, K. (1958): "Introducción" in Mitxelena & Agud (arg.) *Nicolao Landucci. Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, *ASJU*-ren Gehigarriak 3, Donostia. [Orain SHLV-n, II, 762-82].
- , (1960): *Historia de la literatura vasca*, Madril. 2. arg., Erein, Donostia 1988.
- , (1961): "Euskal iztegegilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *Euskera* 6, 7-22. [Orain SHLV I, 361-372].

- , (1963): *Lenguas y protolenguas*, Salamanca, 2. arg., *ASJU*-ren gehigarriak 20, Donostia 1990.
- , (1964): *Textos Arcaicos Vascos*, Madrila. Berrarg. *ASJU*-ren Gehigarriak 11, Donostia 1990.
- , (1967): “Los refranes del cuaderno de Oihenart”, *ASJU* 1, 11-44. [Orain *SHLV* II, 804-823].
- , (1970): *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbo. [Azkueren hiztegiaren 1984ko berrargitalpenean hitzaurre gisa ere emana].
- , (1971): “Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos”, *FLV* 3, 149-169, [Orain *SHLV*-n].
- , (1978-79): “Miscelánea filológica vasca (I-IV)”, *FLV* 10-11, 205-228, 389-414, 213-236 eta 377-406. [Orain *PT*-en].
- Sarasola, I. (1976): *Historia Social de la Literatura Vasca*, Akal, Madrila.
- , (1980): *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca* [Doktorego tesi argitaragabea], Bartzelona.
- , (1983): “Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos”, [= “Contribución”], *ASJU* 17, 69-212. Berrarg. (*ASJU*-ren gehigarriak, 11), Donostia, 1989.
- , (1984 hh): *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- Soto-Michelena, M^a J. (1978-79): “El lexicón de *Refranes y Sentencias* de 1596”, *ASJU* 12-13, 15-86.
- Urkizu, P. (1989): “Garibairen eskuzkiribu galdu bat (1592)”, *Mundaiz*, 37-38, 33-85.
- Urquijo, J. (1907-08): “Los refranes de Sauguis”, *RIEV* 2, 677-724; 3, 144-157.
- , (1911-33): “Los *Refranes y sentencias* de 1596. Estudio comparativo”, *RIEV*. Berrarg. [zati bat], Auñamendi, Donostia 1964, 2 lib.
- , (1919): *El refranero vasco: I. Los refranes de Garibay*, 2. arg., Bilbo 1976.
- , (1967): “De paremiología Vasca. ¿Conoció Oihenart los Refranes y Sentencias de 1596?”, *ASJU* 1, 3-10.
- Villasante, L. (1979): *Historia de la literatura vasca*, 2^a edición revisada y completada, Ed. Franciscana, Oñati.
- Vinson, J. (1891-97): *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Berrarg. faksim. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- Zubiaur, J. R. & Arzamendi, J. (1976): “El léxico vasco de los refranes de Garibay”, *ASJU* 10, 47-144.